

Gratien Adema «Zaldubi»

**KANTIKAK ETA
NEURTITZAK**

Fitxategi hau "liburu-e" bildumako alea da,
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Kantikak eta Neurtitzak*, Gratien Adema
"Zaldubi" (Ales Bengoetxearen edizioa). Euskal
Editoreen Elkarte, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=315>

I. KANTIKAK

BADA JAINKO BAT

Mintza zaitetze iguzki, hilargi 'ta izarrak,
Itsasoa, ihurtzuri, haize, hedoi, uharrak;
Abre, xori, arrain, ibai, mendi, zelhai, ibarrak.
Oi mundua! nork egin hau? hori niri erradak.

Jainkoak gaitu guziak egin ezdeusetarik;
Bethidanik zen ber-bera, zena bere baitharik.
Mundu hunek ez du nihor, Jaungoikoaz bertzerik,
Ez hastetik egilerik, ez iraunarazlerik.

Jainkoa da izate bat diteken handiena,
Bethidanik zen bezala bethi izanen dena.
Izpiritu garbi bat da gorphutzik ez duena,
Ezin ikhus, ezin ukhi, ezin negur daitena.

Ontasun bai edertasun, indar eta bothere,
Nausitasun, jabetasun, guziak ditu bere:
Gu denak haren meneko, haren eskuan gare;
Hark emanik baizen ez da gutan onik deusere.

Iraganak, oraikoak, ethorkizunekoak,
Gure gogoetak berak, bai nola-nahikoak,
Guziak ikhusten ditu agerian Jainkoak;
Debalde dire harentzat ilhunpe 'ta zokoak.

O Jainko egiazkoa, zu zaitut adoratzen;
Ahuspez, ni hain ezdeusa, natzaitzu ezeztatzen:
Naizen guzia zuk nauzu egin eta beiratzen.
Oi! ni zer bihotz-gabea, ez bazintut maitatzen!

TRINITATE SAINDUA

Sinhesten dut Jainko bat hiru presunetan.
Aita, Sem' Izpiritu deitzen direnetan.
Bakhotxa Jainko bat da hiru horietan.
Bainan Jainko bat baizen ez da hiruetan.

Aita lehen presuna, Semia bigarrena,
Izpiritu Saindua da hirugarrena.
Zein da zaharren edo botheretsuena?
hiruek berdin dute bakharrak duena.

Hiruak bethidanik berdin dire denez.
Izatez, bai botherez, bai Jainkotasunez.
Hiruak bat izatez, berexak presunez;
hiruak jainko bainan Jainko bat baizen ez.

Ene adimendua, hemen suntsi hadi;
Huntan har-zak fedea argi 'ta gidari.
«Sinhesten zaitut» errok mixterioari,
Bat beizik ez denaren hirurtasunari.

Aita, jainko zarena, zure bothereak
zeru lurrak daduzka gaindizka betheak.
Bizia, herioa, egunak, urtheak,
dire zure nahien egin-arazleak.

Aitarenganikako Seme eternala,
Jainko egiazkoa, Aita den bezala;
Zu gizon egin zare, hil ere bai hala,
Gure amodioak ekharriz hortara.

Izpiritu Saindua, Zu ere Jainkoa,
Aita Semen batasun amodiozkoa,
Bieri zarraizkoten argi-ta gozoa,
Susta diezadatzu bihotza, gogoa.

AINGERUAK

Oi zein eder, oi zein dohatsu,
Jaungoiko botheretsuak,
Zein garbi zituen kreatu
Zeruetan Aingeruak!
Gorphutz gabeko izpiritu,
Miragarri 'ta sainduak,
Hetarik ziren abiatu
jaunaren mirakuiluak.

Beren dohainez urguilutan
hainitzak baitziren jarri,
nausi nahiz, nahasmendutan
Zerua zuten ezarri.
Jaunaren hasarrea sutan
Zitzaioten han jazarri.
Orduan ifernura Satan
Erori zen izigarri.

Aingeru gaixtoak geroztik
Debru dire ifernuan;
Eta orai gure ondotik
Dabiltza dethi munduan;
Gure gal-arazteagatik
Ari zaizkigu guduan.
Bainan Jainkoak erorzetik
Beira gaitzala orduan.

Aingeru onak, berthutean
Zeren azkar egon ziren,
Bethikotz saildutasunean
jaunak finkatu zituen.
Orai Jainkoaren gortean
Oi! zein dohatsu diren!
Eta hek eginik lurrean
Oi! zenbat gauza handi den!

Mundura garenean sortu,
Jaungoikoak baxhotxari
Aingeru bat eman daroku
Begirale 'ta gidari.
Zenbat esker on ez diogu
Zor gure aingeruari!

Bai eta zenbat errespetu
Haren han izaiteari!

O Mikael Arkanjelua,
Lagun gaitzatzu guduan;
Luzifer etsai beltz debrua
Ehortz zazu ifernuan.
Gure Eliz' Ama saildua,
aita saildua buruan,
Izan dadila alxatua
Oroz gorago munduan.

MUNDUAREN HASTEA ETA GURE LEHEN BURHASOAK

Zerurik ez lurrik, argirik, egunik,
Ez zen nihun deusik oraino eginik;
Jainkoa bakharrik zen bera lehenik,
Bere baithan bethidanik.

Bere botherea noizbeit du alhatzen;
Ez denari dio badadin manatzen,
zeru lurrak dire orduan agertzen,
Bizia ere da sortzen.

Sei egunez hola Jainkoa zen ari
Izate ematen gauza bakhotxari;
Azkenekotz baita gizonaren aldi,
Berex du hau egin nahi.

Lur garbi puxka bat eskura du hartzen,
Bere itxurarat maiteki orhatzen;
Bere hatsa dio gainera botatzen;
Gizona zaio xutitzen.

Zein eder ahal zen orduan gizona!
Justu eta saindu, oi zein bihotz ona!
Nork erran dezake haren zoriona,
Jainkoak egin ziona?

Gizon idurirat Jauna aphaldurik
Mintzatzen zitzaion, ondorat heldurik.
Ez dela on, zion, gizona, delarik,
Izan dadien baxharrik.

Jainkoak Adami lotarik emeki
Sahetsetik zion hexur bat ebaki.
Eba zen hartarik lehen emazteki
Adamen laguntzat jeiki.

Adam eta Ebak egoitza lehena
Baratze bat zuten, daiten ederrena.
Dena zen heiena hango gozamina,
Salbu fruitu batena.

Sugeak Ebari esondatzen dako
Debeku fruitutik har dezan jateko:
«Jaten baduzue, bizirik bethiko,
Izanen zarete Jainko».

Ebak Adamekin fruitua jaten du:
Beren zoriona hortan zuten galdu.
Geroztik munduan zer kalte ez dugu,
Herio, gaitz eta gudu!

Lehen burhasoek egin bekhatua
Gure odolean dagoku sartua.
Nahiz bathaioan zaikun barkhatua,
Zein den ondoriotsua!

Zu baxharra zare, Birjina Maria,
Notharik deus gabe jajotu garbia.
Sugearen buru ikharagarria
Zuk jorik da eroria.

INKARNAZIONEA

Errefaua

Jesus ona,
Jainko gizona,
Zu zare zu gure zoriona.

Oi! zein gaitz zen, zein etsigarri,
Bekhatuaren kaltea!
Ez balitz gutaz urrikari
Gerthatu Jainko Semea.

Bekhatuaren hutsa nor zen
Ezeztaraz zezakenik?
Aitari buruz Semea baizen
Ez zen ahala zuenik.

Zuhaur zinen, Jainko Semea,
Gure ordain bilhakatu,
Eta mundu dohakabea
Hola zinuen salbatu.

Hartuz gureak bezalako
Gorphutz eta arima bat,
Birjina baten sabeleko
Haur zinen jautsi gutarat.

Izpiritu Sainduaganik,
Birjina guziz garbia,
Zu bethi birjina izanik
Amatu zinen, Maria.

Horra izate Jainkozkoa
Gugatik haragitua,
Jainko-Gizon, Gizon-Jainkoa,
Ordutik Jesus deitua.

Jainkotasun, gizontasuna,
Bi natura ditu betan;
Bainan baxharra da presuna
Bi natura horietan.

Jainkoaren zinezko Ama
Baita Birjina Maria,
Izen hoi du zuzen emana,
Jainko Semetik jaria.

Gizontzeak ez du gutitu
Jesusen Jainkotasuna;
Jainko Gizonak du goititu
Berekin gizontasuna.

Gizonaren jainkoztatzeko
Jainkoa da gizon egin,
Gu zeruraino alxatzeko
Zerutik da lurrerat jin.

Guretzat gizon egin eta
Hil zarena, Jesus ona,
Zuk merezitez baizen ez da
Salbatzen ahal gizona.

Jainkoaren Ama saindua,
Guk ere ama zaitugu.
Ama maite botheretsua,
Ai! urrikal zakizkigu.

JESUSEN BIZIA

Bethelemeko heian, negu bihotzean,
Jesus haurra sortu zen, Eguerri gauean.
Artzainek, Erregeek lehenik dute han
Adoratu Jainkoa gizontasunean.

Jesus errege dela, Herodes entzunik,
Hark tronua khen dezon lotsa da jadanik.
Haur guzien hiltzeko manua emanik,
Jesus hil nahi luke hetan atzemanik.

Berri hori Josepek zuenean jakin,
Ihes gan zen harturik Haurra amarekin.
Hiru urthe Egypton egon ziren behin;
Herodes hil zenean gero etxera jin.

Jesus, Maria, Josep, o zer familia!
Nazaretheko etxe hartako loria!
Hogoi-ta hamar urthez Jesusen bizia
Aphaltasunean zen iragan guzia.

Gero zen abiatu Jesus predikatzen,
Bere botherearen jendetan agertzen,
Bere erresumatzat Elizaren biltzen.
Apostoluetarik lan hortan hasi zen.

Osteka Judearen barne 'ta hauzotik
Eriak bai sendoak zarraizkon ondotik.
Askotan jende sorkha soberarengatik,
Petriren untzitik zen mintzo itsasotik.

Erien sendatzea, hil hotzen piztea,
Itsaso 'ta haizeen manatuz heztea,
Bortz mila gizon gose bortz ogiz haztea:
Jesusen bizia zen holakoz bethea.

Zeren bere berthutez hain zen miragarri,
Gaixtaginak zitzaizkon Jesusi jazarri.
Hoién higuintzak zion ondotik ekharri
Bere heriotzea, gure salbagarri.

JESUSEN AZKEN AFARIA

Errefaua

Adora dezagun mendeen mendetan
Jesus Jainko Jauna Sakramendu huntan.

Jesus amodioz bihotza gaindian,
Zein miragarri zen azken afarian!
Guretzat zelarik hiltzerat abian,
Gerokotz ere zen gurekin nahian.

Apostolueri erraten diote:
«Ni gaur saldua naiz; bihar hilen naute.
Aitarenganako denbora zait bethe.
Huna orai zenbat zaituztedan maite».

Ogia harturik mintzo da Jainkoa;
«Hau da ene Gorphutz gurutzerakoa».
Gero kanbiatuz orobat arnoa:
«Hau dut ene odol ixuri gogoa».

«Ene Gorphutz hau da zuen janaria;
Ene Odol hau da zuen edaria.
Hautan dut finkatzen Testament berria,
Zuekin neraukan bihotz-lokharria».

Sakrifizio 'ta Sakramendu Saindu,
Jesussek egoitza gurekin hemen du.
Gu nahiz alxatu bera da aphaltu;
oro nahi baitu beregana bildu.

Ogi eta arno itxurez iduri,
Itxuretan Jesus itzaltzen da guri:
Izatez hargatik ez arno ez ogi;
Jesus ber-bera da Sakramendu hori.

Aldare Sainduko Sakrifizioa
Ber-bera da nola Galbariokoa;
Berdin-berdina da bien balioa,
Bietan bera da Bitima Jainkoa.

Gurutzean Jesus odolez hustu zen;
Odol bera dugu Mezan ezagutzen.
Bainan Mezan ez du odolik ixurtzen,
Pizturik ez baita gehiago hiltzen.

Iduri bakhotxa zathitzen denean,
Jesus osorik da zathi bakhotxean:
Jesus ez da hausten, ostia haustean,
Ez eta mendratzen, hura gutitzean.

Mixterio huni, o Kristau maitea,
Gorphutzeko begiz bakharrik ez beha:
Huntako begia da guziz Fedea.
Bihotz garbiak du bixta hoi hobeia.

Jaten du justuak, jaten du gaixtoak;
Barnez nor zer garen badaki Jainkoak.
Gerokotz hargatik zer ondorioak!
Loriazko edo zorigaitzezkoak.

Huna Aingeruen Ogia nun dugun,
zeruko bidean hazkurri 'ta lagun.
Nor ere ez baita garbi ez fededun,
Huntarik jan gabe geldi bedi urrun.

Jesusek nahi du gohazkon guziak,
Arimak xahurik, xuritan jauntziak,
Ez bagare haren haragiz haziak,
Ez dezake iraun gu baithan graziak.

Jesusek gu baithan delarik egoiten,
Oi! zenbat grazia darokun emaiten.
Gu ere lorios hil eta pitz gaiten,
Bera da hazitzat gutarat eraiten.

Adoratzen zaitut, o Jesus maitea,
Aldaretik zaude orai niri beha,
Ezagutzen nauzu ni bekhatorea,
Urrikal zakizkit, o Salbatzilea!

JESU KRISTOREN PASIONEA

Azken afaritikan
gauari behera,
Jesus atheratu zen
othoitz egitera.
Oliben baratzean,
hantxe dago bera...
Betbetan horra non den
erortzen lurrera.

Zerk aurdiki othe du
Jesus Jauna hola?
Agonian ahuspez
horra non dagola,
Bere heriotzea
bixtara zaiola.
Izerdiarekilan
dohako odola.

Bere agoniako
kalitza khiratsa
Iretsi behar eta,
oh! zenbat den lotsa!
Munduko bekhatuak
betan eta baltsa!...
Nola baita lehertuz
arnotzen mahatsa.

Judas bere Nausiaz
ixilka zokhotan
Juduekin ari zen
aspaldi tratutan.
Hoita-hamar pezeta,
horra zenbatetan
Saldu duen Judasek
Jesus arras hortan.

Soldatu tropa baten
bera aintzineko,
Heldu da Judas, eta,
ez huts egiteko,
Nori ere musu bat
emanen baitako,

Hori da seinalea,
hori lot bekizko.

Baratzean sarturik,
jada gau beltza zen,
Jesus bere lekuan
dute atzematen.
Musu maltzur bat dio
Judasek ematen.
Jesusek: «Aixkidea,
zer ari haiz hemen?»»

Ihes abian ziren
denak harrituak.
«Har nazazue», dio
Jesus amultsuak.
Hedatzen diotzate
besoak, eskuak.
Orduan lotzen zaizko
laster soldadoak.

Jerusalem barnerat
orai deramate;
Gauak gauari presan

jujatu behaute.
Kaifasen tribunala
ospeka da bethe.
Jesus pasoka, thuka,
hantxe dabilkate.

Bertze Apostoluak
ganak ziren ihez,
Bakharrik zen jarreiki
Jesusi Piarres.
Ezkaratzetik beha
han zagon beldurrez,
Zer othe zuten bada
eginen Jesusez.

Kaifasen neskatoa
zitzaion ohartu.
«Errazu, Jesus horren
laguna zare zu».
Piarresek egiten
dio juramentu,
Ez duela hark Jesus
nixon ezagutu.

Piarresek Nausia
ukhatu orduko
Gauerdiko oilarra
kantuz hasi zako.
Jesusek ja errana
gogora dohako:
«Oilarrak jo gabe nauk
hik gaur ukhatuko».

Ohartzen da Nausia
beha dagokola.
Behatze hark jo dio
bihotzaren zola.
Badoha handik laster,
nigar dariola.
Piarres gehiago
ez daite kontsola.

Kaifasek: «Nor haiz?» dio
Jesusi galdetzen.
Jesusek: «Ni, Kristo naiz»
dio ihardesten.
Denak dire orduan
oihuz abiatzen:

«Ez haiz, hi, blasfemio
egile bat baizen».

Lekhukoak mintzatzen
abiatzen dire;
Gezurrian aurkituz
bai ixilzen ere.
Aitzinat oihuz daude
guziak halere:
«Hilzea merezi du;
ez barkha batere».

Gurutzean hilzea
duela merezi,
Kaifasek igortzen du
Jesus Pilatusi.
Pilatus hori baitzen
gubernuko nausi,
Horren baimena zuten
behar ardietsi.

Zertan othe den bada
Jesusen hobena,
Pilatussek nahi du

berak jakin dena.
Bilhatu eta deusik
ezin atzemana.
«Nik, ez, horren hilzea
ez dezaket mana».

Guziek berriz oihu:
«Bai kondena zazu;
Cesar enperadorek
etsai gaitz bat hau du.
Hunen alde bazare,
guardia emazu;
Ezen zure kargutik
har khenduko zaitu».

Orhoiturik hilzerat
kondenatuetan
Libraraz dezakela
batto egun hartan:
«Barrabas ala Jesus,
zoin da bi hoietan...
Hots! behauzue erran,
zoin?... libra dezadan».

-«Libra zazu Barrabas».
-«Ordean, Barrabas
Gizon hilzaile bat da;
Nik hura libraraz!»
-«Bai libra zazu hura,
eta hau hilaraz;
Bertzenaz Cesarekin
etsai zare arras».

EGUBERRI

Artzainek

Gau min huntan,
Argi eder hunek gu
Nundik argitzen gaitu,
Orai bet-betan?

Aingeruek

Ez, ez izan
Beldurrikan,
Salbatzailea baita sortu gau huntan.
Huna nun den,
Bethelemen,
Haur ttiki bat egina zuentzat hemen.

Artzainek

Oi! hauxe da
Aingeruzko kantua!
Jausten zaiku zerua
Guri lurrera.

Aingeruek

Ez, ez izan
Beldurrikan, etc...

Aingeruek

Heia txar bat,
Hura da sor lekhua
Duena hautatua
Jaunak beretzat.

Artzainek

Guazen, guazen,
Higi gaiten;
Bethelemerat gaitu Jaunak galdetzen.
Haur maitea
Gure beha
Lastoan han dagoku, Salbatzailea.

Aingeruek

Zein maiteki
Duen amak troxatzen,
Bulharrez kontsolatzen,
Haur gaixo hori!

Artzainek

Guazen, guazen,
Higi gaiten; etc...

Aingeruek

O gizona,
Hi salbatu beharrez
Zagok haurra nigarrez,
Askan etzana.

Artzainek

Guazen, guazen,
Higi gaiten; etc...

Aingeruek

Jainkoari
Loria zeruetan;
Bakea mundu huntan
Jende onari.

Artzainek

Guazen, guazen,
Higi gaiten;
Bethelemerat gaitu Jaunak galdetzen.

Haur maitea

Gure beha

Lastoan han dagoku, Salbatzailea.

GURUTZE SAINDUARI

(1877)

Zure besotan, oi Gurutzea,
Hil zaiku Jesus maitea:
haren gurutzefikatzailea
Ni naiz ni bekhatorea!

Guziek errepika

Oi Gurutzea! Oi Gurutzea!
Gurutze saindu maitea!

Jesukristoren Odolak zaitu
Galbarioan gorritu:
Deusek geroztik munduan ez du
Zuk bezenbat dirdiratu.

Bertzorduz hemen etsai gaixtoa
Zutaz izan zen ehoa:
Zure indarra da Jainkozkoa,
Deusek ezin hautsizkoa.

Etsaiarekin bethi gudian
hemen gabilza munduan:
Pharätzen bazaizkigu buruan,
Oi gu nork bentzu orduan!

Jesukristori zurekin baizen
Ez da nihor jarraikitzen.
Zure bidetik da bethi zuzen
Kristaua zerurat heltzen.

IZAR DISTIRANTA

Izar distiranta,
Jaunaren lilia,
Dugun orok kanta:
Agur, Maria.

Zu zinen hastetik
Berex ezarria,
Lehen bekhatutik
Garbi-garbia.

Sainduen artean
Denetan gorena,
Jaunaren gortean
Zare lehena.

Zu zare Jesusen
Ama dohatsua,
Zu bekhatorosen
Ihes lekhua.

Zu zare Sainduen
Zeruko gozoa,
Eta Aingeruen
Bozkarioa.

Zeruko grazien
Ardiestailea,
Zu zare guzien
laguntzailea.

Gure etsaiekin
Gudian, zu gabe,
Gure indarrekin
Gu deus ez gare.

Munduak engana
Eta gal ez gaitzan,
Har gaitzatzu, Ama,
Zure gerizan.

Oren latzgarria
Heltzen zaikunean,
Zaude, o Maria,
Gure aldean.

AMODIO BIRJINA MARIARI

(1877)

Maite zaitut, o Birjina Maria,
Eta bethi zaitut maitatuko.
Ama maitagarria.
Nere bihotz guzia
Izan bedi zuretzat bethiko!

Nor liteke bihotz bat izan eta,
Zu maitatu gabe lagokenik?
Nik zu nola ez maita?
Ene baithan ez baita
Zu maitatuz baizen zorionik.

Bainan ene bihotzaren ahala
Hain da ahul eta hain da guti!
Ai! nik ere oxala!
Aingeruek bezala,
Ama, zure maitatzen banaki!

O Maria, zure bihotz barnetik
Salta bekit phindar bat nitara.
Zure amodiotik
Han su lothuz geroztik,
Erretzetik ez nadien bara.

Zu baitharik pizturikako garraz
Maita niro Jesus gehiago:
Nere bihotz bakharraz
Edo nere indarraz,
Deus ez dirot, Ama, zuri nago.

Ez banauzu ni zuk bethi laguntzen,
Zein erorkor naizen badakizu.
Arren, zeren ez naizen
Bekhatoros bat baizen;
Zure haurra urrikal bekizu.

MARIA BEKHATURIK GABE KONTZEBITUA (1877)

Batek

Amodio ohore
Ama Birjinari,
Maria notha gabe
Kontzebituari.

Guziek

Agur, agur, agur Maria.
Agur, agur, agur Maria.

Gure lehen aitamen
Bekhatuak ez du
Sekulan Mariaren
Arima goibeldu.

Bekhatu gabekorik
Adamen arrazan
Ez zu bezalakorik
Ez da nihoiz izan.

Maria zu hain garbi
Hain saindu sorthua,
Zuk duzu sugeari
Lehertu burua.

Jaunak zu bethidanik
zintuen beiratzan,
Zure Seme zukanik
Sortzekoa baitzen.

Jainkoaren eskutik
Ez da atheratu
obrarik hain ederrik
Nola baitzare zu.

O Birjina Maria,
zer konpara zuri?
Elhur egin berria
Ez zait aski xuri.

Zure baithan Maria,
Berthutea dago
Mendiko ithurria
Baino garbiago.

Zutan gauza handiak
Jaunak egin ditu,
Eta haren graziak
Zaizkitzu gainditu.

Jaunaren baratzeko
Lore hautatua,
Gizon da eta Jainko
Zure fruitua.

Emazte pare gabe
Jainkoak egina,
Amatuz geroz zare
Gelditu Birjina.

Oi zu Birjina Saindu
Jainkoaren Ama!
Amatzat guri zaitu
Semeak emana.

Zure semea hiltzen
Ari zelarikan
Gutaz amatu zinen
Dolore handitan.

Oi zein puxanta zaren
Birjina Maria,
Zeruko loriaren
Erdian jarria!

Zure haurren othoitza
Othoi entzun zazu.
Ama zure laguntza
Zerutik iguzu.

Gure Ama maitea,
Zuk othoi zerutik
Eskualdunen Fedea
Idukazu xutik.

Eliz' eta Frantzia
Dagotzu nigarrez,
Zureganik Maria
Laguntza beharrez.

Lagun zazu Eliza
Zure bothereaz.
Bothere berak beza
Frantzia altxaraz.

OTHOI AMA MAITEA, URRIKAL ZAIZKIGU

(1877)

Uholde baten pare orai bekhatuak
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak.
Nun dire fededunak? nun dire justuak?
Azken eguna hurbil othe du munduak?

Errefaua

Othoi Ama maitea,
Urrikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
Hasarre baitugu.

Nor da gure artean erran dezakenik?
«Ez naiz ni deusen beldur; nik ez dut hobenik».
Zuk dirozu Maria, hain garbi izanik,
Gure grazi' ardiets jainkoarenganik.

Zuri gaude Maria,
Oihu-ta nigarrez.
Jaunaren justizia
Eztitu beharrez.

Gizonen arbuioek aserik Jainkoa,
Bere azotearen higitzera doha.
Nork orai atxik liro Jaunaren besoa?
Zu zare zu Maria indar hartakoa.

Othoi Ama maitea
Urrikal zaizkigu;
Jaiko zure Semea
Hasarre baitugu.

Jaunaren justiziaz ikharetan gaude:...
Othoi, Ama, jar zaite zure haurren alde.
Harengana nor hurbil, nor ager zu gabe?
Zu zaitugu zu haren bihotzaren jabe.

Zuri gaude Maria
Oihu-ta nigarrez.
Jaunaren justizia
Eztitu beharrez.

Jauna, aithortzen dugu: gutarik hainitzi,
Zuri zer zor dautzugun zitzaikun ahortzi.
Gure Fedea dugu aphaltzerat utzi...
Eskualdunarenganik hori zaitzu gaitzi!...

Othoi Ama maitea,
Urrikal zaizkigu;
Jainko zure Semea
Hasarre baitugu.

Lehengo Fede hura berritz pitz dakigun,
O fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun.
Bai! Eskualdunek hemen hitz eman dezagun,
Bethi zinez izanen garela fededun.

Bai! Eskualdunek hemen
Hitz eman dezagun,
Bethi zinez izanen
Garela fededun.

Elizaren argia Erroman hain handi;
Gaixtaginen nahia laite hil baladi...
Zuri gare Maria denak oihuz ari:
Emozu bitoria Aita Sainduari.

Zuri gare Maria
Denak oihuz ari:
Emozu bitoria
Aita Sainduari.

AMA BIRJINA LURDEKOARI

Airea: Atzar gaiten atzar lotarik...

Errepikaz guziek

Guazen, guazen, galdetzen gaitu

Ama Birjinak Lurdera:

Dugun ikus nun den agertu

Guazen Lurdeko Harpera.

Batek

Eskualherrian entzun dugu

Mirakuilu baten fama:

Lurdesen ikusi omen du

haur batek Jesusen Ama.

Guziek: Guazen, guazen, galdetzen gaitu.

Hamalau urtheko nexka bat

Deitzen zena Bernadeta

ur hegiko zariketarat

Zoan suko abarketa.

Harrabots handi bat entzunik,
Zer othe zen beha zagon.
Andre bat harroketan xutik
Agertu omen zitzaion.

Harpe betetik goraxago
Zilhoska baten erdian,
Ama Birjina beha dago
Bernadetari lorian.

Argi xuriz bezi omen zen
Eta xoragarri eder.
Haur bihotz garbi bati baizen
Ez zaiteken hala ager.

Erran omen zion haur hari
Ithurri bat bazela han:
Edan zezala, eta garbi
Zadiela ur berean.

Harpe hartan ez baitzen urik
Lehen sekulan ikusi:
Bernadetak han ithurririk
Nihun ez zezaken kausi.

Bernadetak harpe xokhoan
Eskuz xilhaturik lurra,
Bet betan hark egin xiloan
Sortzen hor hasten da ura.

Ithurri bat nasaia orai
Erran dute han badela
Sendatzen handiak ere bai
Ur hark egin dituela.

Gero hau erran zion omen
Birjinak Bernadetari:
«Eliza bat nahi dut hemen;
Errozute aphezeri».

Hau ere omen zion erran:
«Mintza zaite Bernadeta,
Jendea proasionean
Hunat bil dadin osteka».

Bernadetak zion Maria
Oihuz zagola gutara:
«Othoitz eta penitzentzia
Egizue-ta ez bara».

Bertze behin zen saminago

Ama Birjinaren hitza:

«Ez dirot atxik gehiago

Jaunaren beso borthitza».

Hau da galdegin zioena

Haurrak gero Birjinari:

«Andre ona, zure izena

Erradazu othoi niri».

Andrea orduan eman zen,

Zeru ederrari beha;

Zioelarik: «Ni naiz deitzen

jaiotze notha gabea!»

LURDEKO HARPE SAINDUAREN AINTZINEAN KANTATZEKOA

(1877)

Boz batek

Huna, huna, Harpe saindua!
Belhaunika gaiten hemen;
Birjinaren ager lekhua...
Beha horrat: horra nun den.

Guziek

Horra, horra, Harpe Saindua!
Hor agertu zen Maria:
Huna mirakuiluz sortua
Birjinaren ithurria.

Noiz ere hunat baitzen jautsi
Ama Birjina zerutik,
Harroka, larre eta sasi,
Hemen ez zen bertze deusik.

Bernadeta hortxetik zagon

Ama Birjinari beha:

Guretzat ere o zein den on,

Orai hemen izaitea!

Hauxe da hemen gerthatzeko

Gauzaren hunkigarria!

Gutarat hala ethortzeko,

Zu behar zinen Maria!

Bernadeta bezein garbirik

Ez baitzen nihor izatu,

Ez zen hura beizik bihirik

Agertze hortaz gozatu.

Horra harroka hortan xutik

Orduko haren itxura;

Huna zurrutan ithurritik

Hark sorrarazizko ura.

Ama Birjinak erran hitzak

Handizki dire obratu.

Hark galdatu zuen elizak

Harpe hau du khoroatu.

Osteka noiz nahi geroztik,
Birjinak erran bezala,
Zeruko grazien ondotik
Jendea hemen dabila.

Mundu guziak badakitza
Hemengo mirakuiluak,
Nun nahi azkarrik dabilta
Eri hemen sendatuak.

Gorphutz eri guziak baino
Arimak beharragoak,
Usuago dire oraino,
Hemen pizturikakoak.

Eskualdunak huna nun garen
Maria zure oinetan;
Lagun gaitzatzu Fedearen
Begiratzen gure baithan.

Orai hori bera guziek errepikaz

Eskualdunak huna nun garen
Maria zure oinetan;
Lagun gaitzatzu Fedearen
Begiratzen gure baithan.

Boz batek

Fedeak du egin bethitik
Eskualdunen ohorea:
Gure artean bethi xutik
Iduk dezagun Fedea.

Guziek

Eskualdunak huna nun garen
Maria zure oinetan;
Lagun gaitzatzu Fedearen
Begiratzen gure baithan.

Batek

Gu ere zenbat galtzen ari,
Fedea hoztu zaikunak!...
Othoi Maria, urrikari
Izan zatzu Eskualdunak.

Guziek

Eskualdunak huna nun garen
Maria zure oinetan;
Lagun gaitzatzu Fedearen
Begiratzen gure baithan.

ANDRE DENA MARIA

BETHARRAMEKOA

(1877)

Agur, Ama Birjina
Betharramekoa
Zeruko Erregina
Eta lurrekoa.
Oi guretzat zer ama!
Zer arartekoa!
Berea dadukana
Seme bat Jainkoa!

Munduko usinpean
Itho ez gaitezen,
Zure botherea han
Daukuzu agertzen:
Erori garenean
Gaitutzu altxatzen,
Eta bide onean
Maiteki laguntzen.

Eskualdunak aspaldi,
O Ama maitea!
Zureganat badaki
Hemengo bidea.
Munduak khendu nahi
Darokun Fedea
Hemendik altxa bedi
Indarrez bethea.

Gur' arbasoak lehen
Oi zer fededunak!
ama zuganat ziren
maiz ethortzen hunat.
Orai ere gu hemen
Gare Eskualdunak,
Maiz zure laguntzaren
Beharra dugunak.

Othoitzez gagozkitzu
Hemen zure oinetan:
Fedea finka zazu
Gure bihotzetan:
Osasuna iguzu
Gorphutz arimetan:
Zerurat hel gaitzatzu
Zure besoetan.

ANDRE DENA MARIA SARRANTZEKO

Oi, Andre Dena Maria, Sarrantzeko Brijina,
Oi, zu Jainkoaren Ama, Zeruko errejina,
Zure Semeaz zu zare gure Ama egina.

Toki hau zen lehenago oihan, sara, arantze;
Eskualdunek bide zuten izendatu Sarrantze.
Orai hobeki deit laite Mariaren baratze.

Badu hurren mila urthe, ibai horren erdian,
Birjinaren bultu beltz bat, hor baitzen aspaldian,
Atxeman zutela xutik harroken agerian.

Mirakuiluzkoa zela dirudi eder hori,
Ospeka horrat jendea urrundik zen ethorri.
Birjinaren botherea agertu zen orori.

Handik khen, ereman, ebats, zer ez zioten egin!
Espainia-Jakan barna gorde ere bai behin.
Bera hunat itzulia bethi zuten eredin.

Erregeak berak ziren ethortzen Sarrantzera,
Gorphutz eta arimako fagore galdetzera;
Asko ere da hemendik sendaturik athera.

Eskualdunek, o Maria, toki hau maite dugu.
Orai ere zuregana huna nun garen heldu.
Eskualdunaren fedea ez da oraino galdu.

Munduko ibai gaixtoak geramatza borrokan.
Eskualdunak gauden xutik fedearen harrokan.
Iduk gaitzatzu, Maria, othoi, zure besotan.

ANDREDENA MARIA PILHARREKOA

Eskualdunek, o Birjina Maria,
Amodio, ohore dautzugu.
Zein zaren on, puxant, miragarria,
Nork sekulan aski erranen du?

Eskualduna zure arbasoekin
Jende zela diote denboraz;
Zure odol bereko gare egin
Zure Seme Jesusen odolaz.

Gure Ama zarela orhoit zaite
Gurutzetik Semeak emana.
Zure haurrak hain gaitutzu gu maite,
Zu baitzare Jainko baten Ama.

Mundu huntan oraino zinelarik,
Gureganat hunat zinaizkigun;
Eskualdunak lehen lehentarik
Zuk gintutzun athera fededun.

Santiago, zure Apostolua,
Gu salbatzen zinuen lagundu.
Zuk orduan utzi Pilhar saildua
Saragoitzen ohoratzen dugu.

Pilhar hortaz, gure Ama maitea,
Nahi duzu berma gaiten zuri,
Gogor eta azkar gure Fedea
Izan dadin harri hoi iduri.

Hemezortzi ehun urthe baditu
Fedearen gutan landatzeak;
Orai arte leial gaizko gelditu,
Gu fededun nahaste gabeak.

Eskualdunei Fedea khendu nahiz,
Etsai gaitzek gaituzte hertsatzen.
O Maria, zu gure alde jarriz,
Deusek ere ez gaitu lotsatzen.

Gure zuzen lurrekoak galdurik,
Oso dugu bederen Fedea:
Eskualduntzat ez da ezagaturik
Gutartean sinheste gabea.

Othoi, lagun gaitzatu, o Maria,
Gure behar ordu guzietan,
Osagarri, ontasun, familia,
Zerurako gure urhatsetan.

SAN JOSEPEN KANTIKA

(1891)

O Josep, zein handia den
Zuri eman gozoa!
Zu baitzare Birjinaren
Espos berthutezkoa:
Jainko-Seme-Gizonaren
Lurreko burasoa;
Zeruko Jainko Aitaren
Ordaina, lekhukoa.

Jesus sorthu baino lehen,
Zerutik ikhasia,
Zuk, Josep, bazinakien
Haur horren ethorkia:
Arrotz leihorrik gabeen
Abere atherbia,
Gerthatu zen Bethelemen
Jesusen sorthegia.

O Josep, oi zein miteki
Jesus haurra askotan
Adoratuz zein umilki
Besarka zinadukan!
Aingeruak han egoki
Zuri beha herronkan;
Hain baitzagoan goxoki
Haurra zure besotan.

Haurra hartuz Amarekin,
Tristerik Herodesi,
Josep, Esiptoan barna
Juan zinaizkon ihesi.
Lehengo Josepen fama
Han zen oraino bizi;
Han zuk profeten errana
Zinuen gertharazi.

O Josep, Nasarethera
Itzuli zinenean,
zer bakea, zer gozoa
Etxe haren barnean!
Zurekin Jainkoa bera
han ari zen lanean,
Munduaren argitzera
Agertu aintzinean.

Ikusgarri dohatsua,
Josep azken hatsetan:
Jesus besarka lothua,
Maria nigarretan...
Hiltze hori, zer Zerua,
hekien besoetan...!
Hel zakizkit, o Saindua,
Niri oren beretan.

JONDONI PETIRI EDO PIARRES APOSTOLUAREN KANTIKA

Hunen aire berezia ez dakitenentzat,
aire ezagutu hau: *Uholde baten pare.*

Hasteko eta koplaren artetako errefaua

*1. Hau, Jondoni Petiri herriko
patroina dutenek kantatzekoa.*

Gure Patroin Saindua, Jondoni Petiri,
Egiozu guretzat othoitz Jainkoari.

*2. Hau, Jondoni Petiri patroin
ez den herrietakoa.*

Apostolu handia, Jondoni Petiri,
Egiozu guretzat othoitz Jainkoari.

Piarres itsasoan zen arrantzan ari;
Jesusek ikusirik erran zion: «Haugi:
Hire anaiarekin niri jarraik hadi;
Nik eginen zaituztet jende arrantzari».

Bi anaiek guziak zituzten han utzi
Eta deus gabe ziren jarraiki Jesusi.
Gero zuen Piarres Jesusek hautetsi
Bere Apostoluen bildumako nausi.

«Nor naiezela, diote?» Jaunak galdeginik,
«Ni nor naizen nahi dut, entzun zuenganik».
Hau ihardetsi zion Petirik lehenik:
«Kristo Jainko Semea zarela diot nik».

«Ene Aitak argituz zeren mintzo haizen,
Hire gainean diat Eliza finkatzen:
Haren zimenduko haut harrokatzat hartzen,
Ifernuko oldarrek higri ez haitzaten».

«Emanen darozkiat, zeruko gakhoak;
Arimen salbatzeko podore osoak:
Hik laxatuak edo lothurikakoak,
Berak egintzat ditik harturen Jainkoak».

Piarres hola zuen Jesusek ezarri,
Lurreko Elizaren lehen buruzagi;
Artzainen beren artzain, gida eta argi;
Egia fedezkoen trenkatzaile garbi.

Piarresen untzia behin itsasoan
Kalerna zirimolez hondatzera zohan.
Jesus lo baitzagoen, deskantsu osoan;
«Jauna salba gaizatzu», oihuz dagozko han.

Jesusek xutiturik dio kalernari:
«Nik manatzen baitaiat, ixil bara hadi».
Nausiak manu hori egin bezein sarri,
Itsaso 'ta haizeak geldi ziren jarri.

Orai ere iduriz, untzi hura bera
Munduko uhinetan lohake galtzera:
Jainkoak lo dirudi; bainan gauden beha...
Eliza garhaitzale da bethi athera.

Goiz batez Piarresi untzira sarthurik,
Jesusek erran zion «Sarea zak aurdik».
«Jauna, ez dut atzeman sarean deus gaur nik.
Bainan aurdikiren dut berritz, zuk erranik».

Piarresek sarea botatu orduko,
Arrainez betheegiz haustera dohako.
Jesusen oinetan da jartzen belhauniko:
«Jauna, bekhatoros naiz, zuri hurbiltzeko».

Nausia ukhaturik, geroztik Piarres,
Khiraski egun oroz ari zen nigarrez;
Jesusen amodioz bihotza suharrez,
Minez zagon, mundua sustatu beharrez.

Bere Aitarengana Jesus igan eta,
Petirik zuen oso Elizaren artha.
Erromaz egin zuen bere hiri hauta.
Girixtino guziek hura zuten aita.

Piarresek Fedea hain zuen hedatu,
Nun Enperadorea baitzen asaldatu.
Hiltzera zuenean hunek kondenatu,
Buruz behera zuten gurutzefikatu.

Azken koplak berex hau mariñelentzat da:

Gu ere zu bezala Jondoni Petiri,
Itsasoko mariñel eta arrantzari...
Gure nekhe gaitzetan oihuz gaude zuri;
Ai! izan zakizkigu othoi urrikari.

SAN FRANTSES ASISEKOA

San Frantses Asistarra bizi zen mendean,
Arima zerutiar hainiz zen lurrean.
Hura zuten guziek zeruko bidean
Buruzagitzat hartu beren aitzinean.

Sortzez aberats baitzen, halere gazterik
Jarri zen deus ez nahiz Jainkoaz bertzerik;
Jende beharreneri guziak utzirik,
Athez athe zabilan, sabela goserik.

Mundua harritua saildu huni beha...
Mirakuilu bat zaio hunen berthutea.
Jende behararentzat oi! zer ohorea!
Zer kontsolatzailea San Frantses pobrea.

Bititze pairakorra, othoitza, barura,
Horra zer bidez zohan San Frantses zerura.
Guk ere har dezagun berdin bide hura;
Gure salbamendua hala da segura.

Jesusen oinhazetan bihotza igeri,
San Frantses amodioz zen erretzen ari.
Jesu Kristok ziozkan zilatu bortz zauri,
Bortz zauri odoletan, bereak iduri.

Nork erran zauri hetaz zuen min samina,
Eta min harekilan haren atsegina!
Bere Jainkoarekin hain zen bat egina,
Nun izen goitikoa baikhar Serafina.

Hauk ziren San Frantsesen hatsberak, oihuak:
«Oi amodioaren atsegin sainduak!
Oi penitentziaren kontsolamenduak!
Holako gozorikan ez du ez munduak».

SAN BERNAT

San Bernat munduan zure bizia,
Oi! zer bizi saindu, miragarria!
Et' orai zeruan zoin den handia
Zure zoriona, zure loria!

Ethorkiz aberats puxant zelarik,
Mundua lausenguz zagokolarik,
Bernat, salbatzeko oro utzirik,
Mundutikan ihezgan zen gazterik.

Maiz egun osoak barur egonez,
Gabazko loari ukho eginez,
Dena xukatua garratzasunez,
Bethi othoitzean zagon auhenez.

Etsaia, gau batez eta neguan,
Lohiki zitzaion hasi guduan.
Bernatek zer zuen egin orduan?
Lephoraino sartu ur hormatuan.

Bere khar sainduaz gero hasi zen
Bazterren sustatzen eta argitzen
Jendetan zer nahi gaitzen sendatzen,
Populu-ta-printze, denen higitzen.

Bernaten bihotzak erran ez daite
Jainkoaren Ama zein zuen maite.
Amodio beraz, ai! baleraite
Gure bihotz hotz hauk orobat bethe!

Gu hemen ilhaunik haur flako batzu
Mundupetik zuri oihuz gaudetzu.
San Bernat maitea, lagun gaitzatzu
Zerutik guretzat othoitz egizu.

SAN JOANEZ-BATIXTA SALHAREN KANTIKA

Errefau hau lehenik kantari berexiek

Joanez Salha, haurren Apostolua,
Jende xehearen ongile khartsua,
hain lorios orai zerurat altxatua,
Izan zaite laudatua.

*Guziek lehen kopla hori bera errepika,
haste huntan eta segidako kopla arte guziez*

Bai mundu guziak, Joanes Batixta Salha,
Sainduen herronkan ohora zaitzala:
Gu ere Zerurat hel baginte, oxala!
Bermaturik oro zu bezala.

San Joanes Salharen lehengo burhasoak,
Eskualdunak ziren, Ziboz Salhakoak.
Gu balin bagare haren odolekoak,
Izan gaiten bihotz berekoak.

Haurrean aingeru, gaztean oi! zein garbi,
Bere lagunekin bethi maitagarri,
Aberats emaile, beharrei urrikari,
Gero bera deus gabe zen jarri.

Gazterik jakintsun, apheztu 'ta hasi zen
Nek hazalen haurren eskolara biltzen.
Jende xeheri guziz emana baitzen,
Heien aita zuten orok deitzen.

Osagarriz ahul, egun osoz nekhean,
Gabaz oren luzez zagon othoitzean.
Urthe gehiena zeraman barurean,
Gorphutzaren mainen beldurrean.

Nahiz duen hanbat bihotz eta berthute,
Etsaiek maiz gerla egiten diote.
Hek eginik ere laido bai eta kalte,
Berdin ditu bihotzetik maite.

Saindu amultsua, zure ondokoetan
Zu zare oraino bizi heien baithan,
Haurren altxatzea irakaspén onetan
On da guziz zure eskoletan.

Oi Jan-Batixt Salha, gure saindu maitea,
Othoi lagun zazu Eskualdun jendea;
Iduk dezan bethi azkar bere Fedea,
Aspaldiko bere ohorea.

SANTA GRAZIA

Errefaua

O Santa Grazi maitea,
Gure lorea zare zu!
Zure Eskualdun jendea
Zerutik zuk lagun zazu.

Grazi paganoetarik
Luzitanian zen sortu;
Aitak jakin gabetarik
Goizik zen giristinotu.

Gazte, eder, aberats zen,
Aingeru bat bezein garbi;
Ez zen Jainkoari baizen
Bere hautuz eman nahi.

Bainan aitak hitzeman
Narbonako printze bati,
Zeramaten hunengana
Saragoz hirian gaindi.

Birjina giristinoa
Gelditurik Saragozen,
Hango prefet paganoa
Laster hari ohartu zen.

Prefet hau zen Daziano,
Kristauen etsai nausia;
Berriki zuen oraino
Bixintxo hil-arazia.

Entzun baitzuen zein eder,
Zein aberatsa zen Grazi,
Haren dohaineri aiher
Preso zuen har arazi.

Manatzen dio lehenik
Arnega dezan Fedea.
Grazik: «Jauna, ez dut ez nik
Utziren Jainko neurea».

Hasten zaio burregoa
Ukhabil ukhaldiz joiten.
Geldi-geldia, gaixoa,
Nigarrez zaio egoiten.

Zaldi baten buztanari
Emana sokaz estekan;
Zaldiaren lauhazkari
Grazi darraiko herrestan.

Burdin orrazez harraska
Larrua diote khentzen;
Zango besoak tiraka
Diozkate atheratzen.

Bulharrak ere errotik
Trukesez zaizko khenduak,
Gibel-erraiak barnetik
Kanporat dilindatuak.

Halere Grazi martira
Oraino dago bizirik,
Zeruetarat begira,
Oinhazeak ahantzirik.

Presondegian, gaixoa,
Hola zuten berritz sartu;
Handik zitzaien usoa
Bere hegalez airatu.

Orai bethiko biziaz,
Grazi han zare gozatzen,
Zure odol ixuriaz
Orai zare loriatzen.

Jainkoaren baratzean
Hain eder zaren arrosa,
Maiteki gure artean
Deitzen zare Graziosa.

Arima zeruan eta
Gorphutza presondegian;
Santa Grazia gordeka
Ezarri zuten hobian.

Bakea jitearekin,
Kristauek lehen urthetan
Eliza bat zuten egin,
Sainda hunen ohoretan.

Ohoin batek Sainduari
Beso bat baitzion khendu,
Ebatsi 'ta gorde nahi...
Mendi hautan zuen galdu.

Urhez eta diamantez
Beso hau zen estalia;
Bainan holako ebastez
Ohoina ezin balia.

Handik laugarren mendean,
Huna nola zen besoa,
Santaugraziko lurrean,
Atxeman oso osoa.

Zezen bat oihan heietan
Egun oroz zen ikhusten,
Adar puntak su kharretan,
Haitz bati belhaunikatzen.

Aphezak lekhuko hartuz,
Jakin zezaten zer zen han,
Haitz barne kofa miatuz,
Besoa zuten atzeman.

Eliza bat han berean
Egin izan zen hortako,
Arroztegi bat aldean
Arrotz beilariendako.

Sei mendez, hamar kalonje
Santagrazin egon ziren,
Lehenik harroken jabe,
Gero laboratu lurren.

Higanot etsaiek gero
Denak zituzten herrautsi,
Ereman ahalak oro,
Besoa ere, ebatsi.

Erreleki hau galdu 'ta
Jendeak zauden nigarrez,
Saragozerat oihuka,
Hunen ordain bat beharrez.

Santa Graziren erhi bat
Ardietsiz Saragoiztik,
Ekharri zuten herrirat,
Eta han dago geroztik.

Erhi hura bera denez
Santagrazin altxatua,
Gure Jaun Aphezpikuez
Bethi da begiztatua.

Santa Graziren erhiak,
Oraino hango beiletan,
Sendatzen ditu eriak
Maiz gaitzik handienetan.

SANTA LUZIA

Jesus Birjinen esposa, Oi! zu, heien bizia!...
Zein eder zure aldean dagon Santa Luzia,
Garbitasunaren arthak martir hil-arazia.

Luzia gazte, aberats, dohainez gainditua;
Loriaturik zagoen zuri beha mundua.
Bainan zure loria zen garbitasun saindua.

Santa Agatarat beilaz joanik amaren lagun,
Ama eri maite hura han sendatu zitzaitzun;
Zure birjina botua han onhetsi zerautzun.

Luzia agindua zen pagano printze bati.
Entzunik utzia dela, printze hori bekhaizti,
Luziaren odolez du ezpata gogo busti.

Luziak hilen dutela laster baitu aditu,
Jadanik bereak oro pobreri eman ditu.
Berthutez, edertasunez, aberats da gelditu.

Giristinoen etsaiek egin zuten zer-nahi,
Arnegarazi beharrez fedea Luziari.
Lausenguz ala bortxaka debalde dire ari.

Prefeta bere tronutik, burregoak aldetik...
Zu ere, printze gaixtoa, errabian barnetik.
Nehork ez diro aldaraz Luzia berthutetik.

Ez gizonez, ez idiez, ez su emanik ere,
Ez dezakete Luzia higi-araz batere.
Ezpata lephotik sartuz hiltzen dute halere.

Zeruan baizaude handi, gure Patroin maitea,
Beira zazu bethi azkar gure baithan Fedea;
Ez dezagula nehoiz utz zerurako bidea.

AITA SAINDUARI

(1877)

Airea: Gernikako arbola

Erromako aldetik zer da argi hori?
Egiak dauku handik argitzen orori.
Beha dezogun beha bethi Erromari,
Erromako Eliza Ama Sainduari;
Beha dezogun beha umEEK Amari.

Hara Aita Saindua Jesusen ordaina,
Aphetz Soberanoa, artzainen artzaina
Jaundoni Petiriren ondoko zuzena.
Fedeaz dohanean tronpa ez daitena:
Erromatik mundua argitzen du dena.

Piarresi ziozkan guretzat Jainkoak
Atxikitzerat eman argi fedezkoa!...
Argi berak daduzka haren ondokoak
Munduko goibeletan ezin histuzkoak,
Orai hastean bezein garbi-ta osoak.

Jesusek Piarresi erran zion behin:
«Elizaren zimendu hi behar haut egin.
Hartako diat nahi harriz izan hadin.
Ez zirok deus irabaz etsaiak hirekin,
Berak dik minhartuko hi jotzearekin!».

«Hire gain uzten diat ene arthaldea.
Bildotsen bai ardien xuxen alhatzea.
Hiri zagok Anaien beren azkartzea:
Hik idek edo hets duk zeruko athea:
Hik duk ene gakhoen podore bethea».

Munduko nahasduren ulubiak ditu
Orai arterainoko guziak suntsitu.
Piarresen harroka guti da higitu:
Elizaren arbola xutik da gelditu;
Inharrosteaz zaizko erroak handitu.

Lurreko puxantziek uste zuten eiki
Aise behar zutela Eliza aurdiki.
Berak dire erori!... gero ezin jeiki!
Guziak goaki bainan Eliza egoki...
Hemeretzi menderen berri ja badaki.

Erroma! o Erroma! Hiri aiphatua!
(Lehen oro harena omen zen mundua.)
Piarresen harroka han da landatua,
Eta mundu guziko Eliza Saindua
Dena haren ganean da asentatua.

Nork erran Piarresen Erroman sartzea?
-Laster ohartu hintzen Enperadorea!-
Biak nausi, elgarri jartzen dire beha:
Bat artzain ona bezein otsoa bertzea:...
Hauta zak hor Erroma zoin dukan hobea!

Hainbertze girixtino odol iretsirik;
Berari odol hura zainetan sarthurik,
Erroma xutitu zen girixtinoturik.
Enperadorek berek tronutik jautsirik.
Aita Saindua zuten utzi han jarririk.

Aphez eta Errege: bi bothere betan,
Oi! zein ederki dauden haren eskuetan!
Ez da sainduagorik buruzagietan:
Nor da zuzenagorik, nor khorodunetan?
Gaixtaginek hortako dute begietan!

Munduak Erromari zer dio galdetzen?
Egi eta gezurra han bake ditezen.
Horra beraz mundua zertaratu haizen...
Egiarik ez nahi hautsiz-mautsiz baizen!
Bainan Aita Sainduak osorik dauk zaintzen.

Munduko nausitasun guzien gakhoa,
Horra Aita Sainduak duen eskukoa:
Lurrekotzat emana zerutikakoa.
Hori hari khen eta nork duke dretxoa
Gizonak gizonari deus manatzekoa?

Oi zein handi zein eder, zein gora zaren zu!
Zuri loriatuak beha gogozkitzu.
Aita Saindu maitea, haur bihotzdun batzu,
Eskualdunak gu ere zureak gaitutzu:
Zurerik baizen ez da Eskualduntzat haizu.

LEO XIII AITA SAINDUAREN OTSALDIA FRANZIAREN BATAIOKO

*XIVgarren mende burukotzat egina
Latinetik lokabizki eskuararat itzulia*

Lurreko jendakien goiti beheitiak
Jainkoaren eskuak dabilzka guziak:
Handienak aphalduz, goratuz ttikiak:
Zuzena nun den daki haren zuhurtziak.

Klodobe errege zen sortzez paganoa;
Alamanekin zuen gudu bat gaixtoa;
Ezin trenka baitziron etsaien lerroa,
Othoiztu zuen oihuz Kristauen Jainkoa.

Klotildaren Jainkoa, othoi hel zakizkit;
Etsai hau jotzen badut, zure naiz oraitik.
Girixtino natzaitzu eginen gogotik,
Ez dut Frantzian nahi Jainkorik zu beizik.

Klodobek othoitz hori egin dueneko,
Soldadu uzkurrenak sutan jartzen zaizko.
Heien oldarra nihork ez du atxikiko:
Etsai hilez bertzeak ihesi dohazko.

Orai Erremintserat hail Klodobe gaitza;
Atxikak Jainkoari eman dukan hitza.
Han bathaiatu eta berri zak agintza,
Lagunduren dukala Jesusen Eliza.

Erremiko elizan sartzen da errege:
(Girixtino Klotilda zuen ja andere.)
Aphezpikuak dio ematen hau lege
Adoratu idolak oro detzan erre.

Aphaldu duenean Klodobek burua:
Heldu zaio alderat Jaun aphezpikua:
Eman dioenean bathaio saindua,
Errege han dagoko besarka lothua.

Erroma zabal zatzu bai zure erraiak.
Amatzat hartzen zaitu Frantsesen jendaiak.
Bazterrak nahi ditu zuretzat nasaia,
Ez dakizkitzun hurbil hauzotik etsaiak.

Erroma khendu nahiz Aita Sainduari,
Hauzo gaitzak zitzaizkon usu gerlan ari.
Pepin frantses erregek hek jorik bi aldi
Emendatu ziozkan lurak Erromari.

Oi zein den ukigarri orhoitzea bera
Nor ziren gan lehenik Jerusalemara!
Frantziatik ziren hek ospeka athera,
Jesusen hobiaren Turkoer khentzera.

Angelesa Frantzian sarthurikan nausi,
Gizon aski azkarrik ez baitzaiten kausi,
Nexka batek zituen gudutan herrautsi,
Khoru galdua ere erregeri jauntzi.

Hamalau mende huntan Klodobez geroztik,
Zenbat ongi dathorren haren bathaiotik!
Jainkoak berak dauka Frantzia besotik.
Deusek zoratu gabe, egon dadin xutik.

Egoadi girixtino jendaia suharra:
Ez zakala gal hire ohore zaharra:
Begira zak Fedea eta haren kharra:
Hark darok idukiren bethiko indarra.

Beretu baihinduen Jesusek aspaldi;
Haren etsaier buruz bethi bihur hadi.
Denek elgar maite 'ta denek elgar adi:
Batasunak orotan indarra dik handi.

Klodoberen bathaio urthabethetzeak
Aurthen ditu Frantzian eder ohoreak.
Bathaiharri hartara bil beitzetz ospeak,
Berritz indar har dezan han gure Fedeak.

Ekhialdean barna, Frantsesen izena,
Bethi da gehienik aiphatua dena:
Basa jendetaraino, guziz urrunena,
Frantsesa de Fedea hedatzen duena.

ESKUALDUNEK AITA SAINDUARI

*Bere lehen Mezaren berrogoi eta
hamargarren urtheburuko*

Denbora goibel hautan zer ikusgarria!
Erromari beha da mundua jarria.
Handik heldu baitzaiku Zeruko argia;
Han baita Aita Saindu Leone handia.

Orai du hamar urthe dela Aita Saindu:
Haren Apheztasunak mende erdia du.
Urre-eztaien besta denek zor diogu:
Biba! Aita Saindua, dugun egin oihu.

Aphezpiku maitea bazohaz zu ere,
Erroman egiterat Aitari ohore.
Fedez eta bihotzez zurekin bat gaude;
Eskualdunez Aitari mintzaturen zare.

Eskualdunen arima, o! Aita Saindua,
Zuri bai zuri dago tinkoki lothua.
Bethi haren Fedea zutaz argitua,
Garbirik dago eta ezin bentzutua.

Hirur Fededun alde lehengo mendetan,
Bazituen Elizak gure herrietan.
Hirur heien izenak nahi laizte betan,
Gure Aphezpiku bat aiphatzen denetan.

Othoitz hau entzunazu o! artzain nausia;
Baiona izan dadin, alkhi berezia,
Leskar et' Oloroni izenez josia...
Eder da hirur lorez Khoro bat jauntzia!

APHEZ BERRI BATENTZAT

Hastean eta kopla artetan denek errepika

Aphez soberanoa,
O Jesus, zare zu,
Gure aphez huntarik
saindu bat egizu.

Gure aphez gaztea horra aldarean,
Jesusek ezarria bere podorean:
Herritarrak hor gaitu oro bihotzean:
Guretzat hari zaiku orai othoitzean.

Horren aitamek dute ohore atsegin,
Beren semea aphez baitzaiote egin.
Haur haurretik zioten Jainkoak galdegin;
Dohainik ederrenez du orai berregin.

Oi zein dohatsu zaren zu gure apheza!
Zein hunkigarri zaikun egun zure Meza!
Zure bihotzak Jesus hor besarka beza;
Zorion handienaz orai zaite goza.

Hor zure inguruan Aingeruak ere
Jesusen adoratzen ahuspeka daude;
Zu xutik, hor hek baino gehiago zare;
Ez dute zuk bezenbat hoiak hor bothere.

Kontsekrazionean zure erranera
Zerutik jausten zaitzu Jesus aldarera:
Jainko gizon egina bizirik berbera,
Zuk ematen daukuzu ogitzat jatera.

Jesusen hunkitzeko, zer esku garbiak,
Ahal zaduzkan Ama Birjina Mariak!
Zureak ere dire sakratu berriak,
Krismaren gantzudurez oraino bustiak.

Zu behar zare izan arimen argia,
Zerurako bidean heien gidaria;
Ardi galdu direnen Artzain bilharia,
Guziz berthutearen etsenplu garbia.

Aphezaren bihotza bethi zabaldua,
Bekhatorosarentzat zer ihes lekhua!
Huni aithortuz geroz egin bekhatusa,
Urriki duenari zaio barkhatua.

Azken orenetarat hurbildua denak
Aphezaren laguntzak ditu beharrenak.
Hark eman Sakramendu biziko azkenak
Dire ondorioa eternal dutenak.

AITA BENEDITINOERI

*Ce Cantique fut composé pour l'installation
des Pères Bénédictins à Belloc (Urt)*

Errefaua

Ongi-ethorri, Aita onak,
Jainkozko gizonak.

Nor dire hauk, heldu direnak
Desertuaren barnetik,
Gu salbatu beharrez jenak,
Iduri bertze mundutik?
Gure bekhatuen hobenak
Berek pagatzea gatik,
Hoiiek dire ez ditezkenak
Bara penitentziatik.

Badu hamalau ehun urthe
San Benedit sortu zela.
Aberats, eder eta gazte,
Guti zen hura bezala.
Munduan salbatzea nekhe
Izanen zitzaiola,
Mundutarrek entzuten dute
Desertuan gorde dela.

Zer zoriona, zer bakhea
Beneditek desertuan!
Seguretik han salbatzea
Zein gozo zaion orduan!
Hargatik, non zagon gordea
Jakin baitzuten munduan,
Osteka sartu zen jendea
Haren batasun sainduan.

San Benediten familia
Geroztik zein den hedatu!
Legegabeen azkazia
Hark du jende on moldatu.
Familia haren hazia
Gure lurretan da sartu.

Zerutiar hoiien bizia
Orori zaiku gorestu.

Munduko gozoen ondotik
Herratuak gabilzanak,
Ikusten dugu oraikotik
Nor diren dohatsuenak,
Jainkoa maitatuz gogotik
Zerurat xuxen dotzinak.
Hala nola, oroz gainetik,
Baitire Beditinak.

II. ARTZAIN BELTXAREN NEURTHIZAK

AINTZIN HITZAK

Elhe onak hitz murritzez
Ez du gozo hanbatik;
Egia hil laite hotzez,
Deus ez balu soinetik.
Artzain beltza da neurthizez
Mintzo mendi gainetik.

Artzain beltza beha dago
Mundu huni aspaldi;
Ikhusirik baitu frango,
Denez mintza baladi.
Zenbeit ditu erran gogo
Kantuz delarik ari.

Kantu berri edo xahar
Hanbat baitzen jadanik,
Batzu omen laizte behar
Hautuz berex emanik...
Huna orai zenbeit bakhar
Artzain beltxaren ganik.

Askoren kanta da bethi
Tilili-ta-talala:
Hitz bat gabe, aire bati
Jo zak eman ahala.
Astoak ere badaki
Orroaz halahala.

Hitzak xuxen arrimatuz
Piko, soinu berdinez,
Dohazila lerrozkatzuz,
Airez, hegal arinez.
Artzain beltza dago kantuz,
Berak hala eginez.

Jakintsunen erranetan
Behar bada sinheste,
Ederrena mintzaietan
Eskuara da, diote.
Eskualdunek arrotzetan
Hortaz ohore dute.

Eskualdunek arrotzekin
Ahanztea Eskuara,
Odolari hori berdin
Ukho egitea da.
Gauden erne sar ez dadin
Ahalke hoi gutara.

Eskualduna, hor, ematzik
Hire kantu ederrak;
Irrintzinaz ere atxik
Harroturik bazterrak.
Ez bahu traba arrotzik
Zer egin hiro? errak.

-Alegiak-

BILDOTXA ETA OTSOA

(1873, Sara, 1. saria)

Primadera goiz batez, xirripa batera,
Ama gabe, bildotxa gan zen edatera.
Hantxet ari zelarik xurga xurga bera,
Oihanetik otsoa zitzaion atera.

Otsoak, goraxago urean sarturik:

«Ur hau, erraten dio, zikhintzen dautak hik».

-Bildotxak errepusta: «Jauna, nik nihundik

Hemendik ez dezaket zikhin zure urik».

-«Ixil hadi, kixkila, jaz ari baihintzen

Ene fama onaren nun-nahi funditzen».

-«Jaz ni oraino, jauna, sortzekoa nintzen;

Amaren ttittirat naiz oraino ibilzen».

-«Hire anaia zuan, hi ez balin bahaiz».

-«Ez dut nik anaiarik; ume baxharra naiz».

-«Hots! zuetarik norbeit entzun diat nik maiz.

Nitaz bazerasala zer-nahi elhe gaitz».

Hortan zen bildotxari oldartu otsoa,

Eta bi klaskaz zuen iretsi gaixoa.

Azkarrak duenean partida flakoa,

Hauzia zoinena den erran gabe doa.

Otsoak bildotxari egin zioena,

Jainkorikan ez balitz, nork liro kondena!

Jainko legetik kanpo zertan da zuzena?

Galde ezazu indarrez zoin den nausi dena.

BELEA ETA AXERIA

(1873, Sara, 1.saria)

Aire zaharra

Bele beltzak haragi puska bat mokoan
Jan gogoza zadukan, haitz baten kaskoan.
Axeria ihizin han gaindi baitzoan,
Usainka eta beha trikatzen zaio han.

«Egun on, Musde Bele, zer jaun ederra zu!
Zure lumen dirdiraz lilluratzen nauzu.
Kantari eder baten fama ere duzu.
Nahi zintuzket entzun; eia, kanta zazu».

Belea lorietan hasten da kantatzen,
Duelarik zehe bat mokoan zabaltzen.
Bere zitzia zaio lurrerat erortzen.
Axeria hain xuxen altxatzeko han zen.

Axeriak: «Milesker, dio beleari.
Ez gaitela, to, fida lausengariari,
Ez eta ere gure eder usteari.
Jaki hau daiat hartzen hitz on horren sari».

ASTO BAT ERRELEKIEKIN

(1864)

Aire zaharra

Asto bat kargatua erreleki sainduz,
Triki triki bazoan panpalina soinuz.
Jendea, erreleki hoieri inguruz,
Zeinatuz paratzen zen ukhurturik buruz.

Ohore hoi astoak beretzat zadukan;
Ez zuen egundaino holakorik ukhan.
Jendeen agur hoiek ikhustearikan,
Irrintzinaz hasten da, lorian, jauzikan.

Norbeit, ohartuz horren atrebentziari,
Oihuz hasi zitzaion: «Ai! zer astoa hi!
Ez gaituk, ez, agurka hiri buruz ari;
Bainan hik bizkarrean deramakanari».

Zenbat den bazterretan asto horren pare!

Zeren diren aberats baitute ohore!...

Aberatsak, hartzekotz ohorea bere,

Behar luke diruaz bertzerikan ere.

AXERIA ETA AKHERRA

(1884)

Aire zaharra

Akher zahar bat eta axeria behin,
Elgar lagun harturik bidaiaz zoazin.
Beroz eta egarriz biek elgarrekin
Zupu baten zolarat zuten jauzi egin.

Zupuko ur hortarik aski edan eta,
Ateratzeko dute xutegi pareta.
Han preso egotea ez dela josteta...
Axeriak dabilka asko gogoeta.

Axeriak erraten dio akherrari:
«Beha zak, to, gogota zertaz naukan ari.
Bizkarrez bai adarrez zer zurubia hi!
Paret horri xut-xuta hortxet phara hadi».

Akherrak lorietan: baietz bai gogotik.

Paretari bi besoz ematen da xutik.

Laster da axeria ilkitzen zuputik.

Akher gaizoa orai zer egingen duk hik?

Kanpotik axeriak: «Egik hik orobat.

Bertzenaz ehintzen, to, sartu behar horrat.

Nik hemendik hiretzat deusik ez ziroat...

Aintzinetik zertako ez beha gerorat?»

Zenbat bi zangotako axeri holako!

Guri esker baitire jarriak goraxko!

Arren gutan zenbatek errekan beharko,

Ez baigaituzte heiek handik aterako!

KHUIA ETA HEZKURRA

Airea: Iruten ari nuzu

Haitz baten itzalean ontsa jan edana,
Perttoli jakintsuna zagoen etzana:
«Haitzean hezkur eta khuia nun emana!»
Ez zitzaioen ongi Jainkoaren lana.

«Ni izan banintz Jainko zion bere baithan,
Khuiak beharko zuen haitz adar hoietan;
Hezkur pikorrak aldiz lurrean herrestan.
Ai! zer asmua hori gogoratu zaitan!»

Perttoli jaun abila hortan lokhartu zen.
Kopetara hor zaio hezkur bat erortzen.
«Atx! dio, zerk nau hola ni atzarrarazten?...
Khuia balitz erori, aise hila nintzen».

Jainkoak egin gauzak xuxen dire denak,
Handienak bezala berdin ttikienak.
Mundu huntan Jainkorik nahi ez dutenak,
Ororen makhurtzeko hek dire lehenak.

ABEREAK IZURRITEAREKIN

(1866)

Izurrite gorria baitzen aberetan,
Ikustekoak ziren denak ikharetan;
Hobendun handi zonbeit bide zela hetan,
Gogoratu zitzaien guziera betan.

Hamikaho lehoina errege baitzuten,
Hark manatzen diote guziak bil ditzen,
Zoin den hobendun dena atzeman dezaten:
Denen hiltzea baino hobe dela baten.

Erregeren baithara oro bildu eta,
Huna Hamikahoren mintzatze onhesta:
«Jaunak izurrite hau, dudarikan ez da,
Hobenik ez baginu ez laiteke gertha.

»Noren fallaz gaitz hori sartu den gutara,
Bakhotxak gure hutsak detzagun deklara.
Hobendun bat bizirik uzten balin bada,
Izurrite hau nehoiz ez daiteke bara.

»Ni hasten naiz neureen aithortzen lehenik:
Ardi, ahari... asko hil eta jan dut nik;
Zenbeit artzain orobat, gerla hek emanik.
Ez dut uste dukedan nik bertze hobenik».

-«Biba lehoina!... zaio axeria hasten,
Ardi eta artzainak zintuela jaten!...
Ez dut uste zuretzat hori bekhatu den.
Zuk janik izaitea ohore zitzaien».

Axeriak arrozoin duela diote;
Lehoinari -hoben duk- nekhez erran daite.
Hartzek eta otsoek berdin aithor dute
Hek ere bai eginik arthaldetan kalte.

Ordean hoiek ere larri eta azkar,
Holako ihizier nol' eta nor jazar?
Hoien hutsak ez dire handi izan behar.
Hanbat dute xuritzen handi hoiek elgar.

Axeriak hau dio: «Ez dezaket ukha,
Oilo bat hasirikan gau batez pikoka,
Uste gabez hil nuen, maiteegiz, potka.
Gostu tzar bat bazuen zeren zen koloka».

Jan hark kalte eginik zela eri egon...
Geroztik oilokirik ez zitzaiola on...
Axeria nor-nahik garbi zela zion,
Ez baitzen gezurtirik hain abilik nihon.

Hor gero azkenekotz astoa heldu da.
«Kontzientzian, dio, hau dut errenkura:
Igorzen baininduten lanetik barura,
Larreko belharretik jan dut nik ardura».

Astoaren aithorra dutenean entzun,
Denek oihuz diote: «Hoi da, hoi, hobendun!
Holako gaixtaginik ez da izan nihun.
Horra izurritea noren gatik dugun».

Beraz, zeren den asto, hor peka dezala.
Ithotzen dute eta jaten berehala.
Mundu huntako legez ere halahala,
Sakrifikatua da maiz jende aphala.

HARTZ BAT ETA BI IHIZLARI

(1876)

Aire zaharra

Larrugin bati behin bi Santagraziar:
«Mendian dugu hartz bat hil gogoan bihar.
Haren larrua dugu zuri saldu behar».
Tratua egin zuten hamar untza zilhar.

Bi ihizlari hoiek, biharamunean,
Goizean goizik ziren sartu oihanean.
Iduri hitz harturik, orduan berean,
Hartz eder bat xut-xuta pharatzen zaie han.

Hartza hek uste baino handixago baitzen,
Gure ihizlariak horrek ditu lazten.
Bat izai bati gora zalu da upatzen;
Bertzea, hil iduri, lurrean etzan zen.

Hartza lurrean dagon horren gana doa.

Galtzatarat eginik han zagon gaizoa.

Hartzak usainka dio hurbiltzen ahoa:

«Phu! phu! hau, bai, hila duk; hauk usain gaixtoa!»

Aphur bat ibilirik higi 'ta ingura,

(Gibel-aldetik zion sendi usteldura)

Utzi zuen jan gabe, ez baitzen barura.

Beharrik zen hain ñaphur goiz hartan hartz hura.

Hila zelakoari, hartza urrundu 'ta,

Laguna heldu zaio: «Errak, to, ez ukha.

Hartza ari baitzuan hiri mandatuka;

Zer erran daukan, niri aithorturen duka?»

-«Beharrirat hurbilduz muthur eta hortzak,

Huna zer erran dautan alimale gaitzak:

Heldu den aldikotzat, hau gogoan har zak:

Larrua saldu gabe hil behar dik hartzak».

AITA BILTZAILEARI SEME BARRAIARI

(1865)

Aberats zikhoitz batek metaka diruak
Bethi oso zaduzkan kutxan giltzatuak.
Semetto bat baitzuen; hor, atrebituak
Harrapatzen diozka oro urdinduak.

Muthiko gaixtaginak diruaren plazan
Kintaleko harri bat ezartzen du kutxan.
Aita heldu da; bainan dirurikan ez han.
Amesten du semea han zaiola izan.

-«Seme frikun, ohoina, zer egin dautak hik?
Hik daiztak ene sosak ebatsi kutxatik.
Heiekin khendu dautak bihotza errotik.
Hilzerat nioak... hil nauk bai hik oraikotik».

Semeak: «Ori, aita, deus ez duzu galtzen.
Harri hori zaitzu hor berdin baliatzen.
Sos txar heien gozoa zuretzat deus ez zen,
Ez zintuenaz geroz hortik ateratzen».

Huntan ohar gaizkion erran zaharrari:

Aita biltzaileari seme barraiari.

Xuhur, ez xuhurregi; on, bainan ez nagi;

Bihotzdun, ez fundibil; hola laite nahi.

HARTZ PHEREKA LATZ

(1882)

Aire zaharra

Jaun batek omen zuen hartz eskolatu bat.
(Halako hartz guti da agertu mundurat.)
Jaunak manatuz geroz harat edo hunat,
Oro ziozkan hartzak ekhartzen eskurat.

Hartzaren nausi hori, behin baratzean,
Itzalean etzana lo zagon lurrean.
Hartzak, han baitago zain jaunaren aldean,
Uli bat ikhusten du haren sudurrean.

Behar diola hortik uli hori khendu,
Kintaleko harri bat hartzak hor hartzen du.
Ukhaldiari zaio ulia aitzindu;
Jaunaren kaskoa du harriak arraildu.

Lausengu moldegaitzek holaxe daukute
On baino gehiago maiz egiten kalte.
Amodioak balu buru 'ta berthute,
Adixkidantza ona orduantxe laite.

BURDINA ETA BAXERA

(1879)

Aire ezaguna

Lurrezko eltzeari burdin tupina bat
Oihuz hasi zitzaion: «haugi nere ganat.
Bazter eder ikustea ibili behainat;
Ene lagun hartzen haut hemendik aitzinat».

Eltzeak tupinari: «Jauna, ni zurekin,
Hauts errexa bainaiz ez naitekezu jin.
Bideko harri batek hunkiz geroz behin,
Segur, hamar pusketan nintzake desegin».

Tupinak eltzeari: «Ez hoin beldur izan;
Atxikiren haut bethi hi nere gerizan.
Harririk balin bada, hark arrail ehitzan,
Ni artean sarturik salbaturen hiz han».

Potikoka hor dire biak abiatzen.

Tupina eltzeari sahetsez da jartzen;

Bainan borthizkixegi baita balanbatzen,

Kisk eta kask, eltzea berak du xilatzen.

Ttiki batzu handier, munduko bidetan,

Jarreiki nahi dire maiz beren kaltetan.

Hegalik gabe gora ezin joan airetan,

Eroriak gerokotz hor daude errekan.

Flako bahaiz, ez hadin aise hauts ez xila,

Azkarrago denari ez hauzirik bila;

Hire xokotik guti aldara hadila:

Seguretik dagona hura duk abila.

BEHARRAREN INDARRA

(1882)

Airea: Atharratze jauregian

Aitak manatu zion seme bati behin,
Larrerat egurketa goizetik gan zadin:
«Hik ekhartzeko daiat zama bat han egin;
Osorik garraia zak; ez zakala arin».

Muthikoa larretik deus gabe heldu da.
«Aita, nik ez dezaket altxa zama hura.
Ontsa behatu diot, ez zazula duda,
Bakharrik ez naiteke lotzerat mentura».

Aitak: «Zer! ez hakien hik, behar bezala,
Beharra deitua den gizon bat han zela?
Hail, hots! oihu egiok lagun dakikala.
Beharra, o beharra, haugi berehala».

Muthikoa larrera itzultzen da berriz.

Egurrari so dago, hunkitzen du erhez.

Gero oihuz hasten da bortz edo sei aldiz:

«Beharra, haugi, othoi... Beharra, hots! nun hiz?»

Nehor ez zaiola heltzen laguntzera,

Khexuz eta hasarrez hor lotzen da bera,

Bi haitaz altxatzen du zama bizkarrera;

Mila debruka gero derama etxera.

«Aita ez zen nehor han; egin diot oihu».

-«Nork lagundu hau bada kargatzen hoin zalhu?»

-«Beharrak nau bortxatu, orai ez dut dolu.

Oxala, bertze hura, debruak joan balu!»

Aitak, erraten dio: «Bethi hola egik,

Ontsa bermatzen denak indar handia dik,

Nik errana hoi huen; ez zuan bertzerik.

Jainkoak laguntzeko ez duk deus hoberik».

OTSOA ETA AMIAMOKOA

(1887)

Probintziar airea

Otsoak ahari bat baitzuen klaskatu,
Zintzurrian zitzaion hexur bat kokatu.
Amiamokoari zioen eskatu,
Othoi, plazer zionetz hura atheratu.

Bere moko luzea sarthuz zintzurrera,
Hegastinak hexurra zioen athera.
Lan-egite hoi sari, hor gure barbera
Otsoari da hasten galdez bortz libera.

Otsoak huna nola zion ihardetsi:
«Zer! hire lana daiat nik ere onhetsi.
Urus haiz, uste gabez, ez baihaut iretsi.
Hortan kito garela behar nauk sinhetsi».

Otso horren iduri da esker gabea,
Guziz meneko badu ongi egilea.
Ongiari gaizkiaz ez ihardestea,
Hau bera zaio aski hertsia den legea.

ERLEAK ETA LISTORRAK

(1887)

Aire zaharra

Erle kofoin bat eztiz bethea zelarik,
Listor alferrak ziren han sartu goserik.
Erleen erregina lehenik ithorik,
Erle-ume guzia khendu zuten jorik.

Listor hoiek berentzat hartzea bertzena,
Beren legetan zuten erraten zuzena.
Gauzaren edertzeko, gehiago dena,
Erleri zuten oso ematen hobena.

Erlen ezti guzia laster iretsirik,
Handik goiti ez zuten jateko poxirik.
Hasi ziren burrunbaz, hasarrez, gaitzirik,
Bizitzekorik aski erlek ez utzirik.

Erlen jabea noizbeit zaiote ohartzen;
Lasto bikhe 'ta sofre ahur bat du hartzen.
Gabaz, lo daudelarik, ditu lanhoztatzen,
Eta guziak hantxet ithorik ezartzen.

Lehengo Printzer eta Elizari esker,
Bazen hainbertze gauza handi eta eder.
Heien ebaslez eta xahutzailez leher
Lehengo jabeeri dire orai aiher.

Lehengoan asmuak aise baliatuz,
Berenak dituztela dagozi espantuz.
Berak lege-egile, Jainkoa khasatuz,
Jenden kontzientzia hil dute debekuz.

Lanho beltzen leizea gakhos dadukana
Hasarre bethean da; ez gaiten engana.
Leizea zabal dadin laster diro mana,
Bolbora lanho batez handi da ja fama.

OTSOA ETA ZAKHURRA

(1901)

Mundu huntako berri nahiz berak jakin,
Otsoa oihanetik athera zen behin.
Hiri eder baterat hurbiltzearekin,
Jarri zen buruz buru zakhur gaitz batekin.

Otsoa zakhurrari nahiko zen lotu.
Gaitzegi baitzitzaion, ez zen menturatu.
Zakhurra bera ere beharrik zen prestu.
Prestuaren indarrak badu errespetu.

Otsoa mehe bezein zakhurra lodi zen.
Otsoak erran zion: «Nolaz hiz hoin gizen?
Irakats diezadak zertaz bizi haizen.
Bainan ez niri erran egiarik baizen».

-«Jende aberatsekin bizi nauk aspaldi;
Egun oroz asean badiat borts aldian;
Kozinariarekin nauk aixkide handian;
Hark niri uzten zautak jan ahal haragi».

Ezpainei milikatuz dago ja otsoa;

«Ai! nik ere, bai, banik hik dukan gozoa!...

Bainan gero zer lan duk? Gero norat oa?

Nik bezala othe duk gozaten kanpoa?»

-«Hautematen badiat hurbiltzen ohoinik,

Eskale, makhiladun, tzarki bezti denik;

Saingaz hasten nauk eta haizatzen tiat nik.

Ez diat hori beizik hanbat bertze lanik».

Otsoa irriz zaio hasten zakhurrari:

«Errak, zer duk lephoan uhal eder hori?»

Zakhurak errepusta: «Ez erran nehuri,

Hunen esteka hautsiz nauk hunat ethorri».

-«Ez naik ez, ni, estekan nehork atxikitzen;

Nausirik ez jaberik ez diat ni baizen.

Hire bizi moldeak ez naik agradatzen.

Adios, oihanerat berriz nauk itzultzen».

Libertatea zer den otsoak badaki.

Gutartean hainitzek ez dakite aski;

Libertate zuzena zer den bereziki,

Eta hura zein oso behar den atxiki.

Beren herritik asko doazi hor hara,
Hiri 'ta gobernuko enplegu hoitara,
Hetan sartuz geroztik, zer beldur ikhara!...
Behar ordutan ere maiz ezin aldara.

Laborari biziak gure basherritan
Badu bertze gozorik; ez da dudarikan.
Xuhurki, ta ximenki hantxet egonikan,
Bakotxa bereekin, eta librorikan.

GATHUA ETA ARROTOINAK

(1901)

Gathu zahar bat bazen nere sor etxean,
(Halako bat on laite etxe bakotxean)
Egun oroz ihizin, bardin gau beltzean;
Sagu 'ta arrotinez zagoen asean.

Saguak jan zituen guziak lehenik,
Arrotainak ez oro, zailegi izanik.
Gutienik ustean, ixilkan jini,
Atzematen zituen amarruz Miñiñik.

Otsaileko gauetan, gathu zahar hura
Hauzoko etxetarat baitzoan ardura;
Arrotainen artean izan zen bilkura,
Hitzhartzeko zer egin, zertara mentura.

Arrotain zaharrenak hau zioten erran:
«Gathuak gehiago ez gaitzan atzeman,
Kroskoila bat lephotik behar zaio eman.
Jiten bada, soinutik dezagun hauteman».

Lan horren egiterat nor zaion gan nahi...
Batek ihardesten du: «Ez ni, ez segur ni».
Bertze batek: «Ni ere ez naite atrebi».
Hola mintzatu ziren aldizka hamabi.

Berrehun han baitziren, bat ez zen athera
Gathuari lephotik kroskoil ezartzera.
Ez da aski lan baten asmatzea bera;
Askotan egitea nekhe da sobera.

HAITZA ETA IHIA

(1901)

Haitza mintzo zitzaion behin ihiari:

«Ai! zein ez-deusa haizen ene aldean hi!
Beha zak, to, zein naukan handiagoa ni.
Hi hain herbail eta txar haut nik urrikari».

Ihardetsi zioen, haitzari ihiak:

«Jainkoak egin gaitu zu eta ni biak.
Harentzat berdin dire handi 'ta ttikiak;
Igzuki berak gaitu argitzen guziak».

-«Ez diagu berdinek deusik hik eta nik:
Hi denmendren haizeak hauka hor etzanik;
Ni ordean niagok kaskoa gorarik;
Ez diat hik bezala Jainko axolarik».

Hola mintzo zelarik ihiari haitza,
Horra nun altxatzen den kalerna bat gaitza;
Hedoi itsusi batzu airean dabilta;
Laster dute zerua ezartzen beltz beltza.

Haitz hura hedoiari hurbilago baitzen,
Ihurtzuria zaio gainerat erortzen.
Haize zirimolak du bihurriki jotzen,
Bai eta erroz gora krisk krask aurdikitzen.

Ihi gaixoa zagon hantxet ukhurtua;
Gero ikhusi nuen berriz xutitua,
Bere mendretasunaz beraz salbatua,
Horra, jende xehea, zure etsenplua.

TRIPOTA

(1889)

Jende beharrak ziren Pello ikhatzkina,
Eta haren emazte Koxepa Martina.
Beren etxola zuten phezoinez egina,
Eta janhari hotza thalo 'ta xardina.

Neguko arrats batez senhar emazteak
Nakhaizturik zaduzkan xardina jateak.
«Gu bethi miserian, asean bertzeak:
Makhur dire, zioten, holako legeak».

Sorgin bat sartzen zaie leihotik barnera:
«Heldu naiz hiru gauzen zuei ematera.
Galda zatzue hirur, berex bat bedera,
Nahi den bezein handi, Deus ez zait sobera».

Pello ohiuz hasten da supazter zokhotik:
«Ai! nik tripot bat banu, jan niro gogotik».
Tripot bat erortzen da, panp! ximiniatik,
Jan on bat egin dezan Pellok oraikotik.

Martinak senharrari: «zer pelloa haizen!
Ez hakiena zerbeit hoberik galdetzen?
Balinba tripot hori, dena den, hoin gizen.
Sudurretik dilindan balitzaik gelditzen».

Martinak hitz horiek athera orduko,
Tripota sudurrera Pellori doako.
Khendu nahiz ari da, debru 'ta karako;
Sudurrarekin beizik ez du atherako.

Haur guziak ondotik, zakhurak saingaka;
Lau zehe sudur hoiez nola ez ahalka!...
Etxean ere nola andrea balaka?
Ez diro ixilaraz han haren kalaka.

Azkenekotz Pellori burura zaio jin
Hirugarren galderik ez dutela egin.
Sudur soberakin hoi dio suntsi dadin.
Tripota suntsitzen da; orai du atsegin.

Alegia hortarik zer dagerin, huna:
Askoren gutizien funtsgabetasuna.
Bil ez badezakegu handi den fortuna,
Dugun goza bederen guttien duguna.

ELHEZ EZ, NAHIZ BAI

(1888)

Duela ehun urthe neskatxa bat bazen,
Ezkondu nahi zela baitzuen ukhatzen.
Nahia ez da aski ez bada bat baizen.
Bi nahien eskasik ez zuen aithortzen.

Berrogoi urthetara zoala jadanik:
«Bai, hobe dut, zioen egonik hola nik».
Bainan loriatu zen galdea izanik
Manex Panplan ezkila joilearen ganik.

Oilo pare batekin doa Mariana
Herriko jaun erretor xaharraren gana,
Eta erraten dio: «Hauxe da hau lana!
Ezkondu behar naizen Erradazut, jauna».

Jaun erretor xaharrak dio ihardesten:
«Aise jakinen duzu baia ala ez den».
«Ilhuntzeko ezkilak duelarik jotzen,
Egon zaite han erne zer dion entzuten».

Ilhutzeko ezkilak jotzen du pan pan plan.
Marianak entzun du: «Bai Panplan daut erran.
Manex Panplan ezkilak dio har dezadan.
Oraitik ez nagoke dudan ez ikharan».

Nahi den hura bethi ez daiteke gorde,
Ez bortxazkoa jasan borondate orde.
Gauza bat doanean gure gogo alde,
Makhurrik hartan baden ez zazula galde.

.

III. BERTZE GISAKOAK

XURIKO

(1867)

Mehetegiko xakurra,
Zangoz, errainez makhurra.
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urthe guzia barura,
Zeren zen toki xuhurra.

Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainei josia,
Uliek jaten hasia;
Xurikok bere bizia
Hola derama guzia.

Mahainpetik kokoriko,
Begira dago Xuriko
Artho axaltto bat noizko
Othe zaion eroriko.
Nausiak ematen daizko
Doan hortik bi ostiko.

Xakhur gaixoa holakoz
Merke hazten zutelakotz,
Tripa hutsik, ilhun gogoz,
Pleinuz zagon egun oroz;
Hatzka zangoz eta besoz
Nihun ez zauken kukusoz.

Ohoinak ere noiz-nahi
Horren sainga ilhaunari
Gabaz ziren irriz ari:
«Xakhur prestua hi haiz, hi!»
Gero ixiltzea sari,
Jo harrika gaixoari.

Egun batez, baratzera
Huiatzen dute lanera,
Doan oilo haizatzeraz,
Xakhur gose-ta -minbera,
Buztana tripaz behera,
Ihes doa gordetzera.

Martin etxeko muthila,
Zalu harturik makhila,
Haren ondotik dabila,
Xuriko xakhur abila
Lastoan ixil-ixila
Dago alegia hila.

Zenbeit gau egun bakharrez
Gorde egonik herabez,
Athera zen jan beharrez,
Hamikatua, nigarrez,
Estalia zaragarrez,
Lakhastaz eta zakharrez.

Sukaldean nihor ez da;
Sartzen da xakhur herresta.
Errekia zen prespresta,
Zeren zen herriko besta.
Usain, milik' eta jasta
Dena jaten du has eta.

Etxeko andre khexua
Hor heldu da hats-hauntua:
«Zakhur madarikatua,
Eia, hor, usu-usua,
Nik hauts artean burua,
Egik hire ordenua».

Ordenuak hau du beltza,
Denen uztea bertzentza;
Xurikok badaki ontsa
Nori zer utz, nola phentsa:
Etxekandreari gantza;
Nausiari azken putza.

Bizian gosez egonik,
Hilzean sobera janik,
Huna Xurikok erranik
Zer entzun dugun azkenik:
«Gose dagonaren ganik
Ez daitekela lan onik».

MARTIN ETA KATALIN

(1851)

Nik bi senhar emazte baditut hauzoan,
Egun oroz goizetik hasiak haroan:
Martin maiz ostatura doakolakoan,
Katalin gathilutik ari da xokoan.

Uste baino goizxago Kattalini behin
Ostatutik etxera heldu zaio Martin.
Gathilua utzirik -horrek baitio min-
Hasten zaio mokoka Martini Kattalin.

«Hor hiza, hordi tzarra, hor hiz, alfer handi?
Ah! zer etxe jalea hartu hintudan, hi!
Hirekin bizitzeak ase naik aspaldi.
Hi, gizon baino hobe hindeken zahagi».

«Hots! Kattalin maitea, ez bada hasarra:
Zuk eta nik badugu elgarren beharra.
Zu nere bihotzean zintuzket baxharra
Zu baino eztixago ez baliz nafarra».

-«Hik iretsi nafarrak ni ez naik ezitzen,
Ez hire mozkor hatsak xutik atxikitzen».

-«Ene hatsak, Kattalin, ez hau, ez, izitzen;
Garratxagorik dainat nik hiri sentitzen».

Kattalin hasten zaio erkhatz ukhaldika;
Gizona bihurtzen da oro aurdikika:
Emaztea dakion hantxet belhaunika,
Buruko iletarik herrestan dabilka.

Hel! hel! hel! deiadarrez Kattalin hasirik,
Banoakote lotsaz izan dadin hilik;
Othoi, hots! egon diton geldirik ixilik...
Biek naute kanpora igorri hezirik.

HITZUNTZIAK

(1857)

Airea: Ikhazketako mandoa

Gure herrri xumetan
Zenbat hitzuntzi,
Zinez edo jostetan
Oro erasi,
Trebese, nahasi!
Beha daude nor zertan
Hobendun kausi,
Nori pitz hauzi;
Deus ez nahiz bertzetan
Onik ikhusi.

Beren hutsak utzirik,
Khexu bertzenez,
Mihia xorrotxirik
Daude ahenez
Heien hobenez;
Nihor ez da garbirik,
Hoierranez,
Kanpoez ez barnez,
Zenbat, hoik ausirik,
Dagozin minez!

Izan dadin egia,
Ala gezurra,
Berdin hoierran mihia
Doa itsura,
Hauts edo urra;
Denmendren iduria
Edo itxura
Dela segura.
Hain da heien loria
Bertzen malura!

Gabaz Akhelarretik
Mainguka jinak,
Hasten dire goizetik
Gure sorginak,
Debruz eginak,
Sist handik, sast hemendik.
Zer listafinak,
Laphar, ausinak!
Sendatzea luze dik
Hek egin minak.

Mihiak du salatzen
Bihotz barnea,
Eta atherarazten
Handik esnea
Edo zornea.
Mihi tzarra da denen
Zikhintzailea
Eta kaltea,
Hauzo eta ahaiden
Makhurtzailea.

Erran xaharretarik
Huna batena:
Mihia da gauzarik
Baliosena
Edo tzarrena.
Ongi edo kalterik
Den gehiena
Egin duena.
Hark dabilka, bethitik
Mundu hau dena.

Girixtinoek bethi,
Jainko legean,
Behar ginuke bizi
Batasunean,
Orok bakean.
Hitzuntzi txar bat gaizki
Mintzo denean
Bertzen gainean,
Nor-nahik diro kausi
Bera hutsean.

MENDE JENDE MENDRE

(1882)

Lehengo denboretan ez zela deus onik,
Maiz aditzen dena da gazte hoién ganik.
Xaharra naizelakotz erran gogo dut, nik,
Oraikoez badenez errenkuradunik.

Diote berthutea, fedea, odola,
Oraiko jendeari guttitu zaizkola.
Hobe omen da orai xikana, eskola,
Bakotxa bere eta bertzez ez axola.

Hurretik mainaz galdu, gero gazte xoro,
Gure seme alaben haizu dire oro.
Burhaso 'ta nausien indarrak akhabo.
Beraz bazter xuxenik gerokotz badago.

Zenbat alfer, edale, aise bizi nahi!
Eta zenbat emanak gurikeriari!
Zenbat hortakotz aiher Jainko legeari!
Aise jendetasuna da ttikitzen ari.

Leheneko mendetan hau zen, hau, zuzena:

Denek ohoratzea berthute zuena.

Orai zer-nahi bidez gora heltzen dena,

Hainitzen agurretan omen da lehena.

Zuzen' eta makhurra, elgarri guduan,

Aspaldi etsai handi Zabiltzan munduan.

Jendea zuzenaren alde zen orduan.

Indar gaitza du orai makhurrak eskuan.

Fedea lehendanik mendratua baita,

Bihotzen hotz idorra erraitea gaitz da.

Bere burua beizik nihor ezin maita,

Izanagatik ere ama edo aita.

Ongi-egile gutiz orhoit da mundua;

Ahaidetan beretan labur da dolua.

Hila hil; osoki da etxetik khendua;

Bai eta hark utzia harentzat galdua.

Huna orai zer laiten askoren nahia:

Gezurriari ez dadin gerlan har egia.

Zotzetik da ziria, hazitik bihia.

Gezurra lege bada, haizu da gaizkia.

OHORE LABORANTZARI

Munduan oi! zein eder den
Ohorezko bizia,
Guziz laborariaren
Lanak irabazia!
Hark du orai, nola lehen
Hazten mundu guzia.

Laborantza gauza handi
Eta botheretsua!
Hartan da lanean ari
Jainkoaren eskua,
Gizonaren eskuari
Berma dadin lotua.

Ez balitz laboraririk
Hits lagozke bazterrak;
Ez liro gauza handirik
Eman alhor alferrak.
Hiritarra, hik segurik
Zer jan hezaken, errak.

Bizitzeko behar diren
Gauza lehen lehenak,
Bihi, fruitu, zer-nahi den,
Oilo, abre gizenak,
Jendeak laborarien
Eskutik ditu denak.

Orhoit gaiten arno hori,
Aihenaren odola,
Edaterat nork orori
Ematen duen hola.
Jakin gabe ez da sori
Edatea nihola.

Laborari etxetan den
Hauk haur eder lerroa!
Zangar lodi, gorphutz lerdan,
Larru garbi sanoa;
Aita ama leialen
Ondorio gozoa.

Laboraria lanean
Egunaz da nekhatzen;
Bainan gero arratsean
Familiaz gozaten.
Gabaz aise da ohean
Goizeraino lokhartzen.

Igandez, Eskualherrian,
Eder laboraria!
Elizan, kantaz lorian;
Plazan, pilotaria;
Xahartu 'ta, jar-harrian
Juje 'do xaxaria.

Laborantzari ihesi
Hanbat seme alaba,
Ai! ondikotz, baitoazi
Toki arrotzetara;
Alhorrak larre 'ta sasi
Hara han daiten bara.

AMERIKETARAKO BIDEAN

(1854, Urruña, saririk gabe)

Huna jadanik hamar egun
Itsasoz itsaso noala,
Nere sor etxetik hain urrun
Utzirik amaren hegala.

Ai! ene amaren nigarrak
Orai ez daude xukaturik,
Aita zenaz seme bakharrak
Baitzadukan konsolaturik.

Arreba, hor egon zaite, zu,
Ama maiteren aldean;
Jinen natzaiola errozu
Bai, urthe laburrik barnean.

Iñharak horra airez aire
Nun doazin alde hartara;
Hegalak banitu, ni ere
Ez nindeke, ez, hemen bara.

Ametsetarik nintzen barda
Aberats etxerat itzuli;
Bainan ene ametsa juan da;
Hartan oro zaizkit itzali.

Lore bat hauzo baratzean
Ikhusi dut, eta han utzi;
Berari deus ez diot erran;
Igorriren diot goaraintzi.

Hor berean, lore gordea,
Egon zakizkit, hitstu gabe;
Zu izanen zare neurea,
Zu, nik ditudan denen jabe.

Ene gazte lagun maiteak,
Sor-herriaz goza zaitezte.
Ni hortik hoin urrun juaiteak
Oi! zein nauen ezarri triste!

Hik, bai, diru gose zorrotza,
Nabilkak hola zoraturik;
Hik dautak gogortu bihotza,
Hik ezarri nauk itsuturik.

Aberastu nahi naiz, baina
Zuzenez eta ohorezki:
Herrirat heltzen naizenean,
Dirudun fama ez zait aski.

PATTIN DIRUDUN EZ FEDEDUN

(1880)

Ez du urthe hanbatik sor herritik joanik,
Pattin ethorri zaiku aberats jadanik,
Agur eta ohore nahiz denen ganik.
Nor da orai herrian Pattin bezein jaunik?

Pattin aberasteak hola badu jaundu,
Nola gerthatzen zaio ez baita gizondu?
Giristino legea utzirik omen du;...
Bihotza nekhez dio diru hutsak ondu.

Pattinen balentria, herrirat jin eta,
Gur' Erlisioenez maiz trufatzen baita.
-«Jainko legea, Pattin, ez dirozu maita;
Huni ihes baitzare ibili sokseta».

Eskola guttirekin joan bezala jinik,
Bera beizik ez zaio nihor jakintsunik:
-«Apez hoiek bezenbat, dio, badakit nik;
Ez zazuela sinhets hoikien erranik».

Pattini gero moltsa diote ebatsi.
Hire ohoinak, Pattin, milaka goaraintzi.
Haren egitatea ez dakikek gaitzi;
Hortan segurik ez dik aphezik sinhetsi.

Bere sosak galdurik denean gelditu,
Lausengariak zaizko Pattini guttitu.
Jakitatez ere bai bera da ttikitu;
Lehengo balentriak ixilduak ditu.

Urrundik jin hoieri gauden beha orai,
Gu bezala fededun diren, ez edo bai;
Eia gure agurren hartzeko diren gai,
Zer othe dituzkegun, anai ala etsai.

BETIRISANTS

Betirisantsez aspaldi dik
Ez zela deus berri handirik;
Zioten ehortzi zutela bizirik,
 Lurpetik ilkirik,
 Ez duk ez hirririk,
Munduz mundu herratua ibilirik,
Oraikotik ditik Betirik
Indarrak hartu, guk utzirik;
Hor zia gok kargu handitan jarririk.
Hor zia gok kargu handitan jarririk.

Betirisants bai lehen ere
Zer den aski jakinak gare:
Zer-nahi jukutria, eta halare
 Orai arte pobre;
 Orai du podore:
Zorri hilik piztuen enperadore;
Gaixto eta tzarren fagore,
Hoein ganik baitu ohore.
Jende zuzenak orai behar du gorde.
Jende zuzenak orai behar du gorde.

Betirisants lehen ardura
Balinbazabilan barura
Orai hargatik legunik dik itxura.
 Amarru segura,
 Jin zaiok burura
Hain aphaletik igaiteko tronura,
Lausengatuz jende makurra,.
Egiatzat salduz gezurra.
Holaxe dik mundua bildu eskura.
Holaxe dik mundua bildu eskura.

Betirisants dugu lehena
Lege hau ekharri duena:
Indarraren meneko dela zuzena.
 Nor baita txarrena,
 Hark dik hark hobena;
Gaixtagin azkar den bat nola kondena!
Orai nor-nahik dakienna,
Ofiziotan den hitsena
Bide da kontzientziadunarena.
Bide da kontzientziadunarena.

Betirisantsen politika,
Bera laxo, bertzeak tinka;
Gero «Bibe la liberte» errepika.

Jendea dabilka

Tiraka, purtzika,

Legar eta lege berri ukhaldika.

Nausi nahiz oro gaindizka,

Bainan oro ezin aldizka.

Diote hori dela Errepublika.

Diote hori dela Errepublika.

Betirisanstarren Jainkoa

Da mundu huntako gozoa,

Erlisione libro eta lazoa,

Aphez gabekoa,

Erran gabe doa,

Gure xakurrarena bezalakoa,

Gerokotzat bego geroa;

Bainan damurik herioa

Hoieri ere zaiote jin gogoa.

Hoieri ere zaiote jin gogoa.

Betirisantsen soldaduak,
Framazon Beltzak deituak,
Non-nahi zaizkigu nausi pharatuak.
 Zer nahasmenduak,
 Kalteak, gastuak,
Derakharzken hoi en gobernamentuak!
Jainkorik ez nahiz, munduak
Jabe hoiak ditik hartuak.
Ez dik gaizki irri egiten debruak.
Ez dik gaizki irri egiten debruak.

Betirisantsen zangopetan
Oi! zenbat dabilan herrestan,
Eta zenbat den haren aztaparretan!
 Bai aberatsetan,
 bai nekhatzaletan,
Zenbat libro uste 'ta diren gathetan!
Bizitze gisa batzuetan,
Jainko legez tratatuetan.
Errexki daude Betiriren legetan.
Errexki daude Betiriren legetan.

Betirisantsi bertze asko
Begiak itsurik darraizko;
Hek ere gisa baitire harendako,
 Zeren diren gaixto,
 Xoro edo asto.

Arren zenbat den bazterretan holako!
Jaun xanfarin, xilodun kasko,
Edale, mandril, esku mako,
Hoien bozak Betirik ditu beharko.
Hoien bozak Betirik ditu beharko.

Betirisanstarren haurreri
Eskola zor zaie deneri,
Bainan eskolan Jainkorik ez zilegi.
 Gero da ageri,
 Behatuz hoieri,
Han ikhasietan direla trebegi.
Berthuteaz nihor ez bedi
Hoier mintzatzerat atrebi:
Ez galde jendetasunik abreeri.
Ez galde jendetasunik abreeri.

ERREPUBLIKA

Erreg' Enperadore et' Errepublika:
Xuxen, makhur, nahaste, zenbat itzulika!
Ai, ai, ai! mutilla, zenbat itzulika!

Gobernamenduetan zoin da zuzenena?
Ethorkiz, legez eta obraz hala dena.
Ai, ai, ai! mutilla, obraz hala dena.

Errepublika onik othe daite nihun?
Baietz, diote; bainan nekhez eta urrun.
Ai, ai, ai! mutilla, nekhez eta urrun.

Frantses Errepublika zer den orai guziz,
Kanta zezakeiagu, berak erakutsiz.
Ai, ai, ai! mutilla, berak erakutsiz.

Liberté, égalité eta Fraternité:
Ah! hiru gezur hoiek egiak balite!
Ai, ai, ai! mutilla, egiak balite!

Lehengo denboretan errege batto zen.
Orai denak errege: hori duk hoi zuzen!
Ai, ai, ai! mutilla, hori duk hoi zuzen!

Ni ere errege naiz, bainan ez aisian;
Bertzeak gainian eta ni bethi azpian.
Ai, ai, ai! mutilla, ni bethi azpian.

Guziak kargu gose, eta nausi nahi;
Hau duk Errepublika: hi khen eta jar ni.
Ai, ai, ai! mutilla, hi khen eta jar ni.

Karguak ziren lehen goratik jin gauzak;
Ematen ditik orai ziri baten bozak.
Ai, ai, ai! mutilla, ziri baten bozak.

Podoreduna lehen handi behar zuan;
Orai ttiki 'ta txarrak nausi tuk multzuan.
Ai, ai, ai! mutilla, nausi tuk multzuan.

Hainbertze bizi nahiz gure zergen gostuz.
Oro bethe zaizkiguk karguz et' enpleguz.
Ai, ai, ai! mutilla, karguz et' enpleguz.

Oro soldado eta jende eskolatu...

Nork beharko dik gero haintzurari lotu?

Ai, ai, ai! mutilla, haintzurari lotu.

Ez gaituk nihoiz izan hoin tinko estekan,

Ez eta biphilduak hoin murriz errekan.

Ai, ai, ai! mutilla, hoin murriz errekan.

Lehengo gobernuez errenkura hintzen;

Orai, mutilla, orai, ikhasak bizitzen.

Ai, ai, ai! mutilla, ikhasak bizitzen.

Alferromes, Koxkarin, Krakesku, Triparno,

Hauk beren jitez dire errepublikano.

Ai, ai, ai! mutilla, errepublikano.

Errepublikanoa, arim' eta gorphutz,

lehen lehenatarik da Kadet Astoputz.

Ai, ai, ai! mutilla, da Kadet Astoputz.

Kadet Astoputz lehen mezara zabilan;

Orai aphezei gerlan omen du aski lan.

Ai, ai, ai! mutilla, omen du aski lan.

Lanbide hitskoari, Kadet, lotu haiz to;
Ez hinte hola ibili, ez bahintz hoin asto.
Ai, ai, ai! mutilla, ez bahintz hoin asto.

Kadet Astoputz horrek, asko herrietan,
Halere badaduzka denak ikharetan.
Ai, ai, ai! mutilla, denak ikharetan.

Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,
Guzien buruzagi horiek ditugu.
Ai, ai, ai! mutilla, horiek ditugu.

Jainko legerik gabe, leg' egile berak...
Holakoz ziren lehen bethetzen galerak.
Ai, ai, ai! mutilla, bethetzen galerak.

Ohoinak ere berdin, biderat atheraz,
Lege egile dituk, indar nausi beraz.
Ai, ai, ai! mutilla, indar nausi beraz.

Jainkorikan ez baliz, ez duk ez gizonik
Gizonari zuzenez deus mana lironik.
Ai, ai, ai! mutilla, deus mana lironik.

Errepublikak dela gobernu zuhurra,
Guzien ontasuna; oi! hori gezurra!
Ai, ai, ai! mutilla, oi! hori gezurra!

Zer-nahi haizu nahiz, berentzat lehenik,
Erlisioneari dire aiherrenik.
Ai, ai, ai! mutilla, dire aiherrenik.

Eskolan eman ditek Jainkoa debeku;
Oraixe gure haurrek behaitek abretu.
Ai, ai, ai! mutilla, behaitek abretu.

Holakoan eskolak sinhets baginetza,
Legerik ez nausirik ez lukek guretza.
Ai, ai, ai! mutilla, ez lukek guretza.

Arrotzak ditiagu gure umen jabe;
Gero izanen gaituk gurerik deus gabe.
Ai, ai, ai! mutilla, gurerik deus gabe.

Nihork bererik deus ez, Gobernuak oro:
Horra zer lege laster duten eman gogo.
Ai, ai, ai! mutilla, duten eman gogo.

Nun dire Eskualdunen lehengo Fueroak?

Arbasoen parrean gu zer gathiboak!

Ai, ai, ai! mutilla, gu zer gathiboak!

Gure zuzenak oro, alegia deus ez,

Moztu darozkigute ixilka, gezurrez.

Ai, ai, ai! mutilla, ixilka gezurrez.

Indarra omen dela orai denen nausi;

Lege zahar guziak horrek ditik hautsi.

Ai, ai, ai! mutilla, horrek ditik hautsi.

Indarra eta bortxa, oi! zer gauza hotzak!

Horiek ez daitezke bil gure bihotzak.

Ai, ai, ai! mutilla, bil gure bihotzak.

Ez duk gizon ez jende hola laket dena;

Guziz Eskualdun zainik ez dik den mendrena.

Ai, ai, ai! mutilla, ez dik mendrena.

Gure eskuara bera galduz bagoazik.

Ai! nihoiz ez baginik ikhusi arrotzik!

Ai, ai, ai! mutilla, ikhusi arrotzik!

GAUDEN GU ESKUALDUN

(1893)

Eskualdun besta eta biltzarretako kanta

Errepika

Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun
Guziak bethi, bethi, gauden gu Eskualdun.

Agur eta ohore Eskualherriari:
Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko, eta Alabari.
Zazpiak bat besarka lot beitez elgarri.

Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan,
Frantzian, Espainian, bi alderdietan:
Hemen hiru 'ta han lau, bat da zazpian.

Ekhalde-Iberrian noiz othe sortua?
Lau mila urthe huntan hunat aldatua;
Hain handi eta azkar lehen izatua,
Orai gure haritza zein den murriztua!

Funditua uholdez, zirimolez, ortziz;
Aizkorari arrotzek adargoiak hautsiz;
Harrek ere ixilka barnetik iretsiz;...
Haritz maitea, min duk aphaltzea gaitziz.

Gure haritz hau, azken mende hautaraino,
Zaharturik ere zen eder bezein sano.
Bere lur hoin garbian oso zagoeno,
Gainetik zoakona behar zen arrano.

Hi haiz, Eskualherria, haritz hori bera,
Arrotza nausiturik moztua sobera.
Oi! gure arbasoak, ez, othoi, ez beira
Zein goratik garen gu jautsiak behera.

Eskualduna jendetan, Eskuara mintzotan,
Lehen-lehenak dire, jakinen ahotan.
Nahiz orai arrotzak azpian hadukan,
Eskualduna, egoadi Eskualdun herrunkan.

Gu gare, Eskualdunak, berexiak beraz
Gure ethorkiz eta mintzaira eskuaraz.
Nihongo arrotzekin ez dadien nahas,
Arrotzek gur' eskuara ez dirote ikhas.

Gureak ziren lehen bazter hauk guziak,
Arbasoek utziak, hek irabaziak.

Guri esker Frantziak eta Espainiak
Daduzkate dituzten Eremu handiak.

Mairu beltza zelarik Espainian nausi,
Nabasen Eskualdunak egin zion jauzi.
Hark ekharri gatheak han gintuen hautsi,
Eta hilez bertzeak igorri ihesi.

Orduan gure alde oihuz zauden oro:
«Bere lurretan nausi Eskualduna bego.
Frantziak, Espainiak, bai orai bai gero,
Deus khendu gabe dute gerizatu gogo».

Agintz' hoitaz geroztik gan dire denborak.
Ukathu diozkate hartzedunei zorrak.
Oi! indar makhurraren lege latz gogorrak!
Galduez zuzendunen alfer heiagorak.

Ez bahaiz, Eskualduna, lehen bezein handi,
Aphaldu gabe xutik bederen egoadi,
Odolez eta fedez bethi berdin garbi,
Bethi tink' atxikia hire Eskuarari.

Gureez gure lehen hain libro ginenak,
Ezin ahantziz gaude orduko zuzenak.
Zer ametsak ditugun, zer orhoitzapenak!
Jaungoikoak baxharrik badakizka denak.

Zuri gaude othoitzez, Jaungoiko maitea,
Lagun zazu zerutik Eskualdun jendea,
Begira dezan bethi lehengo fedea,
Zor zaizkon zuzenekin ardiets bakea.

ESKUALDUNAK

(1882)

Eskualdunak nor eta zer garen
Ez dugu behar ahantzi:
Ekhialdeko jendaia zaharren
Ginela lehen azkazi.
Iberrin ginen hasi
Bizitzen berex gure nausi;
Iberritar berberak hemen
Eskualdun ginen berezi.
Gure Eskualherri hautan lehen
Gure legez ginen bizi;
Sekulan arrotzik ez ginuen
Gure nausitzat onetsi.

Aberats bai hastetik aberez
Ibar eta mendietan,
Gero burdin, zilhar eta urhez
Lur barnetako mietan;
Eskualduna denetan
Antzedunena zen jendetan.
Gero abiatu zen urez
Bidaiatzen untzietan;
Pheniziatik ingurunez
Sartzen zen lur urrunetan.
Ezagun dire deiturez
Haren hatzak guzietan.

Hannibalen bai eta Ponperen
Gerla-gizonen erdiak
Eskualdun zalhu zailak ziren
Hoberentzat berexiak.
Nekhe, laster, jauziak,
Haurretik hala ikhasiak;
Beren bazter librotan deusen
Beldurrik gabe haziak;
Irrintzinaz gudura oldartzen,
Gero han ezin heziak.
Hek amorrik eman baino lehen,
Hilzera zauden guziak.

Goizik ginen gu girixtinotu,
Ja jainkobatar ginenak;
Santiagok baigintuen argitu
Gu orotarik lehenak.
Ama Jainkoarenak,
Saragozen agertu zenak,
Bere Pilharra utzi dauku,
Hari berma gaiten denak.
Gure fedea ez du higitu
Geroztik etsai gaitzenak;
Eskualdunak bethi etsai ditu
Kristoren etsai direnak.

Basa jendez zelaiak gaindirik
Jen ginen mendietara;
Gero berritz Mairuak ethorririk,
Nihork ez zetzazken bara.
Heier buruz gerlara
Noiz-nahi jausten ginen hara;
Bortz mendez hola jazarririk,
Jo ginuen Nabasera;
Berehun mila Mairu han hilik
Itzuli ginen etxera.
Librorik, gatheak guk hautsirik,
Espainia zen athera.

Eskualduna, zerbeit hintzen ari,
Hire mendi hauk beiratuz,
Frantziari eta Espainiari
Mairuen traban pharatuz,
Biak hala salbatuz!
Hire saria zak irakus:
Libroenik utzi beharra hi,
Bizi haiz bertzek manatuz;
Hirekilako patuak hautsi
Dauzkitek hitaz trufatuz;
Estekan tinko haute ezarri
Hire fueroak khenduz.
Mundu guziko mintzaietarik
Zaharrena, ederrena,
Entzuten dugu jakintsunetarik
Dela Eskualdunarena.
Nor othe zen lehena
Eskuara asmatu zuena?
Lehenbiziko jendetarik
Du Eskuarak hastapena.
Eskualdunek dugu hau bakharririk
Gure mintzaia zuzena,
Eta oraino dugu hortarik
Ohorerik handiena.

Lapurdi, Nabarpe 'ta Zibero,
Eskualherriak Frantzian;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
Berdin dire Espainian.
Zazpiak bat nahian
Bagaude aspaldi handian.
Zazpiek bat dute izan gogo
Elgarren oneretsian.
Oi! zein litekeien ederrago
Baldin, Eskualdun herrian,
Eskualduna bere gain balago
Bere zuzenen erdian.

Lauretx, Bizintxo, Loiola, Txaberi,
Lauak Saindu Eskualdunak.
Harizpe, Ager, Zumalakarregi,
Gure gerlari gaindunak.
Astarloaren lagunak,
Atxular, Oihenart, hitzdunak;
Lizarrag' eta Larramendi,
Irakasle hain entzunak;
Bonaparte, Dibasin, Abadi,
Intxauspe, lau jakintsunak:
Horiek dire Eskuaran aspaldi
Argitzaile ditugunak.

Eskualdunak bereziki orai
Fedeak gaduzka xutik.
Jainkoaren beldurra dugu bai,
Gizonenik ez hanbatik.
Jainkoa da goratik
Gure nausi egundainotik;
Guri manatzeko ez da gai
Jainko gabeko puxantik,
Ez sinheste, ez odol, ez mintzai
Ez dutenak deus guretik.
Aixkide ditugun ala etsai
Ahal dakigu engoitik.

PILOTARIAK

(1890)

Pilotak ohore du Eskualherrietan,
Zeren den ederrena joko guzietan.
Eskualdunak gaztetik, pilota-plazetan,
Agertzen du baduen odolik zainetan.

Lehengo pilotari handien izenak
Espantutan gintuzke erran behar denak,
Oraiko gizon gazte deus zainik dutenak
Oro ernaraz detzan heien aiphamenak.

Perkain eta Azantza, zer pilotariak!
Elgarren bethekoak, joile bihurriak
Ikustekoak ziren esku huska biak,
Xixtuz zohazinean hoiien ukhaldiak.

Bai besain, bai besazpi, bai punpa lasterrak,
Oro zituen eder Kurutxet Ezkerrak.
Domingo Ezpeletar zafrari supherrak
Harrituak zaduzkan hark ere bazterrak.

Jandarma Betiri-ta Heraizko Martin,
Bi Soldadueneko osab' ilobekin;
Ibarl'eta Exkanda Duronearekin,
Eskuz bai eskularruz oro ziren berdin.

Sustun Itsasun eta Zuraiden Bettiri,
Soin gehiago ziren erreferan ari.
Onddore-ta Puttiko eta Franxistegi
Bumebarekin botan ziren lau piklari.

Kaskoinak eskularruz Kaskaka, xirrixtan,
Pilota nora nahi zabilkan ximixtan;
Jokoz bezenbat kaskoz, munduaren bixtan,
Nekhez agerturen da haren parerikan.

Berrogoi-ta-zazpiko Irungo partida...
Sekulan halakorik nun ikusiko da!
Kaskoinaren trunkoa ez zaitela bira,...
Hark han eman zituen guziak azpira.

Kaskoinaren denboran baziren hainbertze!
Lopetegi, Gamio, Senjan, Hauziartzte,
Tripero, Kandelero, Ottarre, Goietxe,
Harriaga, Norbertto, Larronddo, Bizintxe.

Gero Espainiatik, guri nausitzera,
Meltxor, Antsa, Mañuel, zitzaizkun athera.
Horien joa ez zen guk usatu bera;
Guante luzeaz zohan atxik eta fuera.

Atxiki joko hori laster ikhasirik,
Frantsesak ez zagozken ez lo, ez geldirik.
Mattiu Aheztarrak, gazterik hasirik,
Españolak zituen iduki hezirik.

Mattiuri bertze hauk zitzaizkon jarreiki:
Bere hiru anaiak, gazteena Betti;
Gregorio, Leitzelar, Organbide, Halti,
Bi Eizartze, Larralde, Xantrea gaindizki.

Eskularrua utziz, arte hortan, oro
Xixteraz hasi ziren nork jo urrunago.
Jo urrun horren leia xuxenean dago,
Eta hurbiletik du indar gehiago.

Bidaur, hiru Larronddo, Xilhar eta Jatsa:
Lau gathu, axeri bat, seigarrena hartza.
Seiek dute jokoa murriz eta gaitza.
Damurik xahartzeak oro geramatza.

Berterretxe, Patzola eta Abadia...
Sakhatik da bihurri hoi en ukhaldia.
Ottarre, Belekabe, Ziki plekaria...
Plazarat agertzeko oi! zer gazteria!

Pilotari xaharrak joaiten has orduko,
Berriak dire bethi ondotik helduko.
Eskualherrian bada bethiko muthiko,
Ohore hoi baitute xutik idukiko.

Saratar hoiek dire sortzez pilotari.
Hazparnen ere hautak badire noiz-nahi.
Ezpeletar, Khanboarrak zirenean ari,
Hek ere segur lehen bazuten behari.

Plaza bat izaiki 'ta pilotaririk ez;
Asko herritan hortaz dagode ahalkez.
Eskualdun aztureri ukho hoi egitez,
Eskualduna da hola Kaskointzen nahi-t'ez.

Igande 'ta bestetan ofizioz goiti,
Pilota partida bat behar laite bethi.
Hartan herriko seme hoberen zonbeiti
Zor zaie agertzea guziz ohorezki.

Askotan eder zaiku plekako jokoia,
Trinket partidatto bat, orobat laxoa.
Bego hargatik nausi errebotekoa.
Pilotako legea hortan da osoa.

Gaztetik ez denean pleka beizik artzen,
Pareta hari joka besoa da galtzen;
Bixta eta indarrak guti han largatzen,
Zabaleko joari nekhez gero jartzen.

Ez du bere parerik errobot zabalak;
Pilotak airatzeko han ditu hegalak;
Botak bai erreferak, marrak bai gibelak,
Han dituzte agertzen nork bere ahalak.

Pik arrasak ez badu hiltzen errefera,
Errebotaren joa doha urrunera.
Paso aldekoak du bihurtzen barnera,
Ahalaz xaxa edo kintze egitera.

Bainan erne baitago errobotlaria;
Zolak igorri joan du bere loria.
Errexaxarieri orobat guardia;
Besoa dute zalu bai eta begia.

Butariaren joko latz eta borthitza;...
Maiz horren eskuan da partidaren giltza.
Paso marrako edo arte-jo murrizta,...
Kintze gudukatuan hark du azken hitza.

Kintze, trente, kuarenta, joko da laugarren.
Hoi en artean zenbat gora behera den!
Erreferaria da beldur arraiaren,
Eta kuarentaduna ados jaustearen.

Pilota partidetan hau ikusten dugu:
Ez dela aski joa handi ez mukuru.
Gehienik duenak begi eta buru,
Kintze irabazteko maiz joa xuhur du.

Oro plazarat bilduz hantxet beha gaude.
Bortz bortzi ari dire bi gizon aralde,
Zoinak jo xuxenik, bizi edo lore.
Irabazleak gero han du han ohore.

Eguerdik jotzen badu partida artean,
Eskualdunak zer garen ezagun gare han:
Buru has eta xutik, denak othoitzean;
Gu baino gorago bat baitugu gainean.

Pilota zoin den joko ohoragarria,
Ongi dakiena da Musde Abadia.
Gazteak pilotara ditezen lehia,
Hark ematen diote bermatze saria.

Saridun partidetan, begira hargatik
Jukutria gaixto bat guri egitetik.
Pilotan ari dena sari horrengatik,
Zinez artzen ez bada, dohala bixtatik.

Barne edo zokhotan dagon gazteari
Trufa egin dezogun zeren den hoin nagi.
Kaskoinen jostetetan gustu badu ari,
Ez dela Eskualduna aise du ageri.

Kanpo aro ez bada, hortakotz barnean,
Inbido-ta hordago joka bai musean.
Orduan da arnoa goxo mahainean,
Guziz irabazirik edaten denean.

AMAXO

(1879)

Opularda beltz eta zai ile gorritan,
Neguko egun batez zagon iguzkitan,
Emakume xahar bat buruko xuritan,
Altzorat alabaren haurra harturikan.

Aña ttikiak dio bere amaxori:

Nolaz duzu, amaxo, ilea hoin xuri?

-Ikus-azu mendian, haurra, elhur hori:

Ene adinak ere negua dirudi.

-Arphegi pollit hori zertako, amaxo,

Ez duzu amak bezen legun eta goxo?

-Haurra, urak maldari errekez doatzo.

Nigarrek naute egin ni ere hoin atxo.

-Zertako egin nigar, amaxo maitea?

Zure kontsolatzeko ez niza zurea?

-Bertze asko neureez, al. ene umea.

Ikusi dut denboraz etxe hau bethea.

-Amaxo, zein baraxe zu zaren ibiltzen!

Zalhukiago naiz ni ttikitik higitzen.

-Haurra, ni ere lehen, zu bezala nintzen...

Urte soberek naute oral dorphegitzen.

-Bizitzen balin banaiz zu bezenbat urthe,

Amaxo, zu bezala, izanen naiz othe?

-Haurra, zenbat munduan luzez bizi uste,

Menturazko agintza beizik ez baitute...

-Jainko maiteak bethi, amaxo, zertako

Ez gaitu elgarrekin bizi araziko?

-Bizi huntaz bertzerik, haurra, guretako,

Badagoka hoberik, eta sekulako.

-Ai, amaxo, biak gu bagine zeruan!

Ai... zer dut nik? Eri naiz... Ai min dut buruan!

-Haurra, goazen barnera, hobeko dugu han:

Xakurra pleinuz dago gure inguruan.

Handik bi aste gabe bi gorphutz elizan

Etxe hartarik ziren ekharririk izan

Eta bien arimak zeruan zabiltzan

Lurreko gaitzetarik bethikotz gerizan.

TRIBUNALETAKO GURUTZEFIKEN KHENTZEAZ

Airea: Xoriñua norat hua

Gure Gobernamentuak
Jainkoa hain higuin du,
Tribunaletarik baitu
Kurutzefika khendu.
Hainbertzenaz du Frantzian
justizia aphaudu:
Kontzientzien beldurra
du behinik bat galdu.

Ez bada tribunaletan
gehiago Kristorik,
Ez dezakeguke altxa
juramentuz besorik:
Han juje direnak beizik
ez bada goragorik,
Gure juramentu orok
ez dute baliorik.

Juramentuak lekhuko,
hartzen baitu Jainkoa.
Jainkorik ez balinbada,
haizu da zin faltsoa:
Jainkorik gabe zer nahi,
ona ala gaixtoa,
Denak orobat direla
hau erran gabe doha.

Gurutzefika ikusiz
sinhestedun jujeak
Makhur jujatze beldurrez
aise ziren hobeak:
«Ez zatzuela kondena,
zioen gurutzeak,
Ni egin nauten bezala
jende hoben gabeak».

Gizonezko justizia
gauza hits eta hotza:
Khurutzefika khentzean
khendu zaio bihotza:
Deus zuzenik gehiago
badukeien naiz lotsa,
Otsoa azkar delakotz
hobendun den bildotsa.

Frantziako justiziak
Jaungoikoa ukhatuz.
Oraikotik etsenplutzat
har dezake Pilatus:
Zuzen ari dela zaio
inozenta urkhatuz,
Hobendun aberatsari
bardin oro barkhatuz.

Jainko gabeko jujeak
framazon edo judu.
Hanbat gaixtoago zuentzat
Jainkorik ez badugu:
Zuen justizia orai,
zer sinheste dukegu?
Zuen sinheste gabea
hartzen dugu etsenplu.

PRIMADERA

Lagunak alegera
Gaiten elgarrekin,
Heldu da primadera
Bere loreekin,
Orai bazter hoztuak
Hark ditu berotzen,
Iduri du munduak
Hilik dela pizten.

Aspaldi mendietan
Urthu da elhurra,
Eta errepiretan
Beztitu da lurra;
Orai dire bethetzen
Bazterrak loreez,
Orai dire estaltzen
Arbolak hostoez.

Hasi dire jostatzen
Bildotsak landetan,
Baita ere agertzen
Inharak airetan,
Hek ethortzearekin
Akhabo negua
Baita ere harekin
Supazter zokhua.

Zer da ederragorik
Primadera baino?
Zer atseginagorik
Sasoin hori baino?
Phalaziuak zer dire
Beren urreekin?
Konparatzen badire
Gure bazterrekin?

Sasoin maithagarria,
Athor gure gana!
Hik oi laboraria,
Has zak hire lana!
Oi errexinoleta
Laster ager hadi,
Goizetan hire kanta
Adiaraz bedi.

Nondik dire ethortzen
Atsegin plazerak,
Nork daizkigu egortzen
Uda primaderak?
Orhoit hadi gizona
Haizeno munduan
Jainko bat guziz ona
Badela zeruan!

ZUMALAKARREGI

Orai kanta dezagun

Oi lagun maitiak.

Orai altxa detzagun

Gerlari handiak:

Eskualdun guziak guri beitez segi

Kantatzeko baltsan Zumalakarregi!

Hura duk Eskualdunen

Gerlako nausia,

Etsairik borthitzenen

Beldurrik gabia,

Sekulan harmadarik ez duk puxantegi

Partida duenean Zumalakarregi.

Nork lezake guduan

Iduk haren kharra,

Suntsitzen denean

Etsaien indarra?

Deusek haren tropak ez detzake mogi.

Ezen heiekin da Zumalakarregi.

Xoilki haren itzala
Zenean agertzen,
Etsaiak berehala
Ziren ikharatzen;
Aintzina juaitera ez ziren zilhegi
Bidean zenean Zumalakarregi.

Nola baita ximixta
Ibiltzen zeruan
Hala haren ezpata
Dabila guduan
Deus Eskualdunarentzat ez da hazkarregi
Berenkin duteno Zumalakarregi.

Gure gerlariaren
Izen aiphatua,
Ez duk ez aurkhituren
Sekulan galdua;
Sekulan ez dugu erranen goregi:
Biba, beraz, biba Zumalakarregi!

ANDRE DENA MARIARI

Izar distiranta,
Jaunaren lilia,
Birjina puxanta,
Agur Maria.

Zu zare Jesusen
Ama dohatsua,
Zu bekhatoreen
Ihes lekhua.

Zu zare Sainduen
Atsegin gozoa,
Eta aingeruen
Bozkarioa.

Zuk gaitutzu hartzen
Zure besoetan:
Garenean sartzen
Hirriskuetan.

Othoi adi zatzu
Kristauen othoitzak:
Othoi argi zatzu
Gure bihotzak.

Zu zare grazien
Kanal jainkozkoa,
Zure haur guzien
Arartekoa.

Birjina Saindua
Zato gure lagun,
Zurekin mundua
Bentzu dezagun.

Oren lazgarria
Ethortzen denean,
Zaude o! Maria
Gure aldean.

Zuk gida gaitzatzu
Gure jujeari,
Zuk junta gaitzatzu
Jesus onari.

ZERUKO ERREGINARI

Kanta dezagun betan
Birjina Maria,
Zeruko tronuetan
Lorios jarria!

Detzagun Mariari
Hel gure bihotzak,
Aingeruen bozeri
Junta gure bozak.

Lilia baratzean
Baino garbiago
Zerurik gorenean
Altxatua dago.

Eder da iguzkia
Bere arrainekin
Ederrago Maria
Bere graziakin.

Nork gaitu beiratuko
Etsaien artetik?
Nork zerurat helduko
Maria zuk baizik?

Bere haurrak Mariak
Ez ditu ahanzten,
Harrek gaitu guziak
Zerutik arthatzen.

AXERIA, OTSOA ETA ZALDIA

Axeri gazte bat amarruz bethea
Eta duda gabe oilaskoz ase,
Trankilki zagoen bere ohatzean;
Ikusten du behin zaldi bat larrean;
Sekulan ez zuen zaldirik ikusi,
Eta badohatzu lasterka ihesi.

Zaldiaren ganik urrundu denean
Hor atxemaiten du otso bat bidean.
Et' erraiten dio: «Ori aixkidea,
Ongi atsegin dut zu hemen kaustea;
Heldu naiz abre bat hantxe ikusirik,
Halakorik ez da munduan bihirik.
Batetik gizena bertzetik handia,
Loria da hari beira egoitia».

-«Othoi behar duzu ethorri nerekin
Hurbilduko gaizko biak elgarrekin».

Otsoak orduan dio ihardesten:

-«Indarra baduen ez dautak erraiten»:

-«Zeren beldur zare, dio axeriak;

Ez gaitu segurki izituko biak;

Fortunak emanik, hunat behar bada,

Gure janaritzat gaur ethorria da».

-Esperantza hortan badohatzi beraz

Ezen segur dire jadanik aferaz.

Salutatzen dute humilki zaldia,

Halako lagun beldurrik gabia.

Axeriak dio errespeturekin:

-«Nola deitzen zaren nahi nuke jakin».

-Hunek errepusta bere laguneri:

-«Zapatainak deraut izena ezarri

Zangoaren zolan: Nahi baduzue,

Hola dagolarik irakur zazue».

Axeriak dio: «Ene ahaidiak

Erromesak ziren bethitik guziak

Ez zuten ahalik en' eskolatzeko

Zilho bat bakharrik gauen pasatzeko;

Bainan jaun otsoa, zure burasoak

Ez ziren segurki gisa hortakoak:
Dударikan ez dut egiten batere
Egotu zarela urthe bat bedere
Zenbeit eskoletan, eta irakurtzen
Laster guziera zinela nausitzen».

-Lausengu horiek aditu ondoan,
Phentsa zer dabilkan otsoak gogoan.
Badoha lasterka zaldiaren gana,
Irakurtu nahiz jaun harren izena;
Bainan zer zitzaion orduan gerthatu?
Zaldia ostikoz hortzak phorroskatu!
Axeriak dio: «Min hartu baduzu,
Dударikan ez da, zure falta duzu.
Lehengo zaharrek erraiten zaukuten,
Eta egiazki arrozoina zuten:
Ez gintezen sobra fida arrotzeri.
Zaldia hoi dautzu erakutsi zuri».

CHENELONJAUN ZENATURRARI ETA HAREN KONPAINIARI BAZKAL ONDOKO USAIA XAHARREKO KOPLAK

*Sei pontutako erdi laxotan
G. Zaldubik pharatuak*

Eskuaraz ere mintza gaitezen
iduri zait lege dela;
Eskual herrian baikare hemen
ez laite gisa bertzela:
Jaun andereak osagarri on
Jainko onak dizuela.

Kristau frantsesak denak bat diton,
dugun entzun Jaun Chenelon.
Kargudun hautu edo bozketan,
oro gaiten fidel egon:
Guk hautatuak izan ditezen
lege zuzen egile on.

Guk Murde Labat dugu Laphurdin
aspaldi gure gizona:
Gure Fede' eta intres orori
hain atxikia dagona.
Luzez oraina bizi dakigun
dugun othoitz Jainko ona.

Baxenabarren eta Xuberon
dute Murde Etcheberri.
Nihork ez daki jaun hark bezala
jende nekhatzalen berri.
Denen argitzen, ongi egiten,
han dabila herriz herri.

Herri' ta jende jainkotiarrez
hautatua baron Garro
Kontseilari on girixtinotzat
Pauen ikusia dago.
Ohorea du Jainko legeak
atxikitzen zuzenago.

Prefet, Suprefet eta Minixtro,
denak aiher Goyhenetchi;...
Ezin aphalduzko gizona
ez zuzen nahi onhetsi:
Halere berak baino gorago
ezin heziz dute utzi.

Juantchutok kara azkarra badu
azkarrago du Fedea.
Holako batez trufa baladi
jaunxkila Jainko gabea,
Lasterxko minez irakuts liro
jaunxkilak gibel aldea.

Gizon argitu girixtinoa,
Guichenne jaun abokata.
Eskual herriko etsenpluetan
ederrenetarik bat da.
Eskual herrian bere andreaz
egin ere zuen hauta.

Ethorkizun bat ederra duzu
zuk ere bai Murde Salla.
Erlisioez, buruz, fortunaz
zare guk nahi bezala:
Eskual herriak bere gizontzat
zu ere hauta zaitzala.

Bertze jaun hori aphez ez balitz
noren joak hez lezake.
Horren arrozoin erroz gaitzeri
jokhatzea baita nekhe:
Lumarik beizen ez den xoria
nork liro biphil hain merke?